

**GIZARTE-EKIMENENKO  
SAN BENITO IKASTOLA  
KOOP. ELK.**

**ESTATUTO SOZIALAK**

**I. KAPITULUA. IZENA, XEDEA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA ETA LURRALDE-EREMUA**  
**4**

1. ARTIKULUA. IZENA	4
2. ARTIKULUA. XEDEA	4
3. ARTIKULUA. EGOITZA SOZIALA	5
4. ARTIKULUA. IRAUPENA ETA LURRALDE-EREMUA	5

**II. KAPITULUA. BAZKIDEAK**  
**5**

5. ARTIKULUA. BAZKIDE IZAN DAITEZKEENAK	5
6. ARTIKULUA. ONARPENERAKO BETEBEHARRAK	6
7. ARTIKULUA. ONARPENARI BURUZKO ERABAKIAK	7
8. ARTIKULUA. ONARPEN-PROZEDURA	8
9. ARTIKULUA. ONARTZEKO ERABAKIEN KONTRAKO ERREKURTSOAK.	8
10. ARTIKULUA. ESKUBIDE ETA BETEBEHAR SOZIALEN HASIERA	8
11. ARTIKULUA. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK.	9
12. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK	10
13. ARTIKULUA. INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA	10
14. ARTIKULUA. BAZKIDEAREN BORONDATEZKO BAJA	12
15. ARTIKULUA. BAZKIDEAREN DERRIGORREZKO BAJA	13
16. ARTIKULUA. BAZKIDE INAKTIBOAK EDO EZ ERABILTZAILAK	13
17. ARTIKULUA. BAZKIDE LAGUNTZAILAK. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.	14

**III. KAPITULUA. DIZIPLINA-ARAUBIDEA**  
**14**

18. ARTIKULUA. BAZKIDEEN HUTSEGITE-MOTAK	14
19. ARTIKULUA. HUTSEGITE SOZIALENGATIKO ZIGORRAK	16
20. ARTIKULUA. ZIGOR-PROZEDURA	16
21. ARTIKULUA. EGOZPENA	17
22. ARTIKULUA. BARNE-FUNTZIONAMEN-DUAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO ELEMENTUAK.	18

**IV. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA**  
**19**

23. ARTIKULUA. ELKARTEKO ORGANOAK	19
24. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIA	19
25. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA	20
26. ARTIKULUA. BATZARRAREN FUNTZIONAMENDUA	21
27. ARTIKULUA. BOTO-ESKUBIDEA	23
28. ARTIKULUA. GEHIENGOAK	23
29. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIKO ERABAKIEN AURKATZEA	24
30. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUA. IZAERA ETA AHALMENAK	24
31. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN ERAKETA ETA BERRIKUNTZA	26
32. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA	28
33. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUARI DAGOZKION XEDAPENAK	29

34. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUKO KIDEEN ERANTZUKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUNAK ESKATZEKO EKINTZAK	30
35. ARTIKULUA. ERABAKIEN AURKA EGITEA	31
36. ARTIKULUA. ZUZENDARI-GERENTEA. IZENDAPENA ETA KARGU-UZTEA. BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK	31
37. ARTIKULUA. ZAINZA BATZORDEA. ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA	32
38. ARTIKULUA. HELEGITE BATZORDEA	33
39. ARTIKULUA. KONTSEILU SOZIALA	34
<b>V. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA</b>	<b>35</b>
40. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNA	35
41. ARTIKULUA. KAPITAL SOZIALA	35
42. ARTIKULUA. DERRIGORREZKO EKARPENA KAPITAL SOZIALERA	36
43. ARTIKULUA. BORONDATEZKO EKARPENAK	37
44. ARTIKULUA. EKARPENAK EGUNERATZEA	37
45. ARTIKULUA. EKARPENEN INTERESAK	38
46. ARTIKULUA. EKARPENEN ESKUALDAKETA	38
47. ARTIKULUA. EKARPENAK BERRESKURATZEA	38
48. ARTIKULUA. PARTAIDETZA BEREZIAK	39
49. ARTIKULUA. ALDIZKAKO ETA APARTEKO KUOTAK	39
50. ARTIKULUA. BESTELAKO FINANTZAZIOAK	40
51. ARTIKULUA. GAINDIKIN GARBIAK	40
52. ARTIKULUA. SOBERAKIN ERABILGARRIAREN BANAKETA	40
53. ARTIKULUA. DERRIGORREZKO FUNTSAK	41
54. ARTIKULUA. FUNTS BOLUNTARIOAK	41
55. ARTIKULUA. GALERA-EGOZKETAK	42
56. ARTIKULUA. KONTU-IKUSKARITZA	42
<b>VI.KAPITULUA. ELKARTEAREN AGIRIAK KONTABILITATEA</b>	<b>43</b>
57. ARTIKULUA. ELKARTEAREN AGIRIAK	43
58. ARTIKULUA. KONTABILITATEA	43
59. ARTIKULUA URTEKO KONTUEN GORDAILATZEA	44
<b>VII. KAPITULUA. DESEGITEA ETA KITAPENA</b>	<b>44</b>
60. ARTIKULUA DESEGITEKO ERABAKIA ETA ARRAZIOIAK	44
61. ARTIKULUA KITAPENA	45
<b>AZKEN XEDAPENAK</b>	<b>45</b>
LEHENENGOA. Kooperatiba-arbitrajea	45
BIGARRENA. Aholkulari juridikoa	46
HIRUGARRENA. Delituen prebentzioa.	46
LAUGARRENA. Kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremu bat izateko baliabide espezifikoa.	47

# I. KAPITULUA. IZENA, XEDEA, EGOITZA SOZIALA, IRAUPENA ETA LURRALDE-EREMUA

## 1. ARTIKULUA. IZENA

SAN BENITO IKASTOLA, KOOP. ELK., izenarekin gizarte ekimeneko irakaskuntza kooperatiba bat eratzen da Lazkaon (20210), abenduaren 20ko 11/2019 Euskadiko Kooperatiben Legeak ezarritako Printzipio eta Erabakien, legezko beste aginduen eta Estatutu hauen menpean.

## 2. ARTIKULUA. XEDEA

Elkartearen xedeak dira:

a) Irakaskuntza arautuko zerbitzuak eskaintzea ziklo eta maila guztietan, bai eta irakaskuntza ez-arautuko zerbitzuak ere, bazkideek eskatzen dituztenak.

b) Hezkuntza-eskaintza euskal kultura eta euskara sustatzera eta garatzera xedatuko da bereziki, eta izaera eleanitza izango du, euskara komunikaziorako oinarrizko hizkuntza gisa erabiliz, gaztelaniaren eta beste hizkuntzen ezagutza eta erabiltzeko gaitasuna bultzatuz.

c) Hezkuntza-zerbitzuak beharrezkoa den kalitate pedagogikoa bermatuko du, eta hobekuntza jarraituko prozesuak sustatuko ditu, hori guztia ikasleak irakaskuntzaren xede diren gaietan trebatzeko helburuarekin. Era berean, ikasleei beren nortasuna garatzen, eta beren gizarte-ingurunean guztiz integratutako pertsona aske eta arduratsu izateko prestatzen lagunduko zaie.

d) Eskola-eskaintza pedagogikoaz gain, elkarteak, aurreko puntuetan aipatutako xedeak lortzeko helburuarekin, kirolarekin, kulturarekin eta aisialdiarekin lotutako jarduera osagarriak eskainiko ditu.

e) Kooperatiba Elkarte honen xedea da, halaber, zerbitzuak eskaintzea eta jarduerak sustatzea (guraso-eskola, hitzaldiak, topaketak, eta abar). Bereziki kontuan hartuko dira gurasoek ikastolako bizitza komunitarioan parte hartzea sustatzen dutenak, eta beren seme-alaben ikaskuntza-prozesuan eta umotze pertsonaleko prozesuan ekarpen arduratsua egitea bultzatzen dutenak.

Ikastolako hezkuntza-eskaintza irekia izango da, eta komunitate osora zuzenduko da. Zerbitzu publikoko bokazioa du, eta arrazoi ekonomikoek edota beste edozein motatako arrazoiak eragindako diskriminazio oro saihestuko du kooperatibak, irabazi asmorik gabe jardunez.

### 3. ARTIKULUA. EGOITZA SOZIALA

Egoitza soziala Lazkaon (Gipuzkoa), Euskadi enparantza z/g, finkatzen da, eta Artezkaritza Kontseiluak egoitza udalerrri barruan lekuz aldatzea erabaki ahal izango du.

### 4. ARTIKULUA. IRAUPENA ETA LURRALDE-EREMUA

**BAT.-** Elkartearen iraupena mugagabeko denboraldirako jartzen da.

**BI.-** Kooperatibaren jardueraren lurralde-eremua Euskadi Erkidego Autonomora mugatzen da.

## II. KAPITULUA. BAZKIDEAK

### 5. ARTIKULUA. BAZKIDE IZAN DAITEZKEENAK

**BAT.-** Bazkide erabiltzaileak.

a) Kooperatiba honetako ikasle gisa onartuak izan diren seme-alaben edo tutoretzapekoen gurasoak edo familia-buruak, ordezkariak edo tutoreak.

b) Adinez nagusiak diren ikasleak, Kooperatibak erabakiko dituen ikasturte eta baldintzetan.

c) Herri erabilerako erakunde publiko nahiz pribatuak, ongintzakoak barne, ikasle adingabeen edo ezinduen zaintza eta babes legala gauzatzen dutenean edota ikasle helduak ordezkatzeko dituztenean, beren menpeko zentro, egoitza edo establezimenduetan hartuta egoteagatik horien ordezkariak espresuki aitortu zaielako.

**BI.-** Bazkide laguntzaileak.

Elkartearen Kooperatiba-xedea bete betean aurrera eramaterik izan gabe ere, xede horren lorpenean lagun dezaketen eta gainerako bazkideekiko komuna den interesa ziurtatzen duten pertsona fisiko zein juridikoak.

**HIRU.-** Lan-bazkideak

Beren lana kooperatiban gauzatu eta garatu dezaketen pertsonak, Estatutu hauek sinatzean onartzen diren eskubide eta betebeharren jakitun, horiek leialtasunez eta efikaziaz betetzeko konpromisoa hartzen dutenak.

Lan-bazkideek behin betiko izaera izango dute, nahiz eta, horretarako aurreikusitako legezko muga barruan, kooperatibarekiko behin-behinekoa lotura soziala izan dezakeen.

**LAU.-** Bazkide inaktiboak edo ez-erabiltzaileak

Kooperatibako bazkide erabiltzaile eta lan-bazkideak, 16. artikuluan ezarritako antzinatean eta eskakizun formalak betez, bazkide erabiltzaile eta lan-bazkide izateari utzi, eta Kooperatiban bazkide inaktibo edo ez-erabiltzaile gisa sartzea eskatzen dutenak.

## 6. ARTIKULUA. ONARPENERAKO BETEBEHARRAK

**BAT.-** Bazkide erabiltzaile baldintza eskuratzeko honako baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Hemezortzi urte baino gehiago izatea edo nahikoa nortasun juridiko izatea.
- b) Kapital sozialerako ekarpenei buruzko konpromisoak onartu eta bazkide hauentzako Estatutu hauetan ezartzen den, edo Batzar Nagusian erabakitzen den eta indarrean dagoen hasierako derrigorrezko ekarpena egitea.
- c) Elkartearen Estatutu hauetan bazkide mota honentzako ezartzen den parte hartzeko konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren organo sozialek balio osoz hartutako erabakiak eta indarrean dagoen legedi kooperatiboa onartu eta errespetatzea, bai eta Elkartearen Estatutuok eta, kasuan kasu, Barne Araudia ere.
- e) Kooperatiban ikasle gisa sar daitezkeen seme-alabak edo tutoretzapekoak izatea, edo Kooperatibak eskaintzen duen zerbitzuaren edo irakaskuntzaren hartzaile izatea.
- f) Artekari Kontseiluari zuzendutako eskabide idatzia aurkeztea.

**BI.-** Behin betiko lan-bazkide gisa onartua izateko, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- a) Bere lan-prestazioaz kontratatzeko gai izatea.
- b) Kapital sozialerako ekarpenei buruzko konpromisoak onartu eta bazkide hauentzako Estatutu hauetan ezartzen den, edo Batzar Nagusian erabakitzen den eta indarrean dagoen hasierako derrigorrezko ekarpena egitea.
- c) Estatutu hauetan bazkide mota honentzako ezartzen den parte-hartzeko konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren organo sozialek balio osoz hartutako erabakiak eta indarrean dagoen legedi kooperatiboa onartzea eta errespetatzea, bai eta Elkartearen Estatutuok ere eta, kasuan kasu, Barne Araudia ere.
- e) Eskaintzen zaion lanpostua burutzeko eskatzen den lanbide gaitasuna edo titulazioa edukitzea eta, beharrezkoa balitz, proba-aldia gainditzea. Proba-aldi hau ez da sei hilabete baino luzeagoa izango. Hala ere, Artekari Kontseiluak zehazten dituen lanpostuetarako, lanbide-eskakizun bereziak dituztelako, hamazortzi hilabete arteraino luza daiteke proba-aldia.

Proba-aldi horretan:

- Bai kooperatibak eta baita hautagaiek ere beren kabuz hautsi dezakete elkarrekiko harremana.
- Ezin izango dira hautagai izan, elkartearen organoetako karguetarako.
- Kooperatibak izan ditzakeen galerek edo irabaziek ez dute heimgan eraginik izango; mozkinen horrenbesteko bat kobratuko dute, ordea, soldatapekoei ordaintzen zaien neurri berean.

- f) Artekari Kontseiluari zuzendutako eskabide idatzia aurkeztea.

**HIRU.-** Behin-behineko lan-bazkide gisa onartua izateko, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- a) Bere lan-prestazioaz kontratatzeko gai izatea.
- b) Kapital sozialerako ekarpenei buruzko konpromisoak onartu eta bazkide hauentzako Estatutu hauetan ezartzen den, edo Batzar Nagusian erabakitzen den eta indarrean dagoen hasierako derrigorrezko ekarpena egitea.
- c) Estatutu hauetan bazkide mota honentzako ezartzen den parte-hartzeko konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren organo sozialek balio osoz hartutako erabakiak eta indarrean dagoen legedi kooperatiboa onartzea eta errespetatzea, bai eta Elkartearen Estatutuok eta, kasuan kasu, Barne Araudia ere.
- e) Eskaintzen zaion lanpostua burutzeko eskatzen den lanbide gaitasuna edo titulazioa edukitzea.
- f) Baldintza guztiak jasotzen dituen sozietate-kontratu bat sinatzea. Kontratu horrek, gainera, espresuki zehaztu behar du Kooperatibarekiko sozietate-harremanaren iraupena.
- g) Artezkaritza Kontseiluari zuzendutako eskabide idatzia aurkeztea.

**LAU.-** Bazkide-laguntzaile gisa onartua izateko, ondorengo baldintzak bete beharko dira:

- a) Hemezortzi urtetatik gorakoa izatea edo beharrezkoa den legezko nortasuna edukitzea.
- b) Kapital sozialerako ekarpenei buruzko konpromisoak onartu eta bazkide hauentzako Estatutu hauetan ezartzen den, edo Batzar Nagusian erabakitzen den eta indarrean dagoen hasierako derrigorrezko ekarpena egitea.
- c) Estatutu hauetan bazkide mota honentzako ezartzen den parte-hartzeko konpromisoa onartzea.
- d) Kooperatibaren organo sozialek balio osoz hartutako erabakiak onartu eta indarrean dagoen legedi kooperatiboa errespetatzea, bai eta Elkartearen Estatutuok eta, kasuan kasu, Barne Araudia ere.
- e) Artezkaritza Kontseiluari zuzendutako eskabide idatzia aurkeztea.

## **7. ARTIKULUA. ONARPENARI BURUZKO ERABAKIAK**

**BAT.-** Bazkideak onartzeko erabakia Artezkaritza Kontseiluari dagokio.

**BI.-** Bidezko kausaren batean oinarrituta bakarrik mugatu ahal izango da:

- a) Zerbitzuak era egokian eskaintzeko Elkartek duen ahalmena.
- b) Kooperatibaren antolakuntza eta funtzionamendurako beharrezkoa den bazkide berrien premia objektiboekin loturiko arrazoiak.

Bazkideak onartu edo baztertzeke ezin izango da Elkartearen xedearekin arrazoi gabeko edo bidegabekoa den bereizkeriaz baliatu.

**HIRU.-** Kooperatiba honetan lan-kontratu mugagabea eta urtebeteko antzintasuna duen besteren konturako langilea lan-bazkide gisa onartuko da inolako frogara eperik gabe; beti ere, eskubide horretaz baliatzeko aukera izan duenetik urtebete baino lehen eskatzen bada eta lan-bazkide izateko estatutu sozialetan jasotako baldintza guztiak betetzen baditu.

## **8. ARTIKULUA. ONARPEN-PROZEDURA**

**BAT.-** Onarpen-eskaria idatziz aurkeztu behar zaio Artezkaritza Kontseiluari, eta honek eskaria hartu ondorengo 60 egunen barruan erabaki beharko du.

**BI.-** Aipatutako epea igaro ondoren erabaki adierazirik eman ez bada, onartu egin dela pentsatu beharko da.

## **9. ARTIKULUA. ONARTZEKO ERABAKIEN KONTRAKO ERREKURTSOAK.**

**BAT.-**Eskariari ezetza ematen bazaio, eskarigileak Helegite Batzordean aurkez dezake bere helegitea, ezezko erabakia behar bezala jakinarazi zaionetik hasita hogeitun lanegun igaro baino lehen. Eta horrek helegitea jasotzen denetik hogeitun hamar eguneko epean erabaki beharko du, interesatuak dioena entzun ondoren, eta idatziz jakinaraziko zaio.

**BI.-**Onartzeko erabakiaren aurka Helegite Batzordeari aurkeztu ahal izango zaio helegitea, gutxienez bazkideen %10ak eskatuta eta akordioaren jakinarazpenetik hogeitun eguneko epean

Erabakia lan-bazkide bati buruzkoa denean, helegitea gutxienez lan-bazkideen %20ak eskatuta aurkeztu ahal izango da.

Nolanahi ere, helegitea Helegite Batzordeak erabaki beharko du jaso eta 30 eguneko epean, interesatuak dioena entzun ondoren, eta erabakia idatziz jakinaraziko zaio.

## **10. ARTIKULUA. ESKUBIDE ETA BETEBEHAR SOZIALEN HASIERA**

**BAT.-** Eskubide eta betebeharrak sozialak onarpen-akordioa hartzen den egunetik hasiko dira eragina izaten.

Aipatu bezala aurkatu egiten bada, akordioa indarrik gabe geldituko da, Helegite Batzordeak erabaki arte.

**BI.-** Proba-aldian dauden lan-bazkidegaiek, lan-bazkideek dituzten eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte, 6-Bi-e) artikuluan zehaztutako berezitasunekin.

# 11. ARTIKULUA. BAZKIDEEN BETEBEHARRAK.

**BAT.-** Bazkideek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Batzar Nagusiaren eta deitzen dieten gainerako organoen bileretara joatea.
- b) Karguren baterako izendatu badute, hori onartzea, ez onartzeko arrazoi egokia dagoen kasuetan izan ezik.
  - c) Kooperatibaren xedea osatzen duten jardueretan parte hartzea. Horretarako, ondoko gutxieneko parte-hartze arau edo modulu hauek ezartzen dira Kooperatibako bazkide-mota bakoitzarentzat:
    - Bazkide erabiltzaileentzat: Beren seme-alaba edo tutoretzapekoak Kooperatibara bidaltzea, Kooperatiban eskaintzen diren irakaskuntza-zikloetan, edo eskatzen diren zerbitzuak erabiltzea. Era berean, honela erabakiz gero, une bakoitzerako ezartzen diren ekarpenak eta aldizkako kuotak ordaindu beharko dira.
    - Behin betiko lan-bazkideentzat: Esklusiboki Kooperatiban lan egitea, betebeharrak horretatik liberatzeko arrazoi justifikatuak daudenean salbu. Balizko horietan Artekazkitza Kontseiluak erabakiko du.
    - Behin-behineko lan-bazkideentzat: Kooperatiban sinatutako kontratuaren arabera, esklusiboki edo partzialki bertan lan egitea, betebeharrak horretatik liberatzeko arrazoi justifikatuak daudenean salbu. Balizko horietan Artekazkitza Kontseiluak erabakiko du.
    - Bazkide laguntzaileentzat eta bazkide inaktibo edo ez-erabiltzaileentzat: Kooperatibari laguntzeko eta kooperatibaren xede soziala garatzeko eta hobetzeko eskatzen zaizkion eginkizunak betetzeko prest egotea.
  - d) Kooperatibak garatzen duen xedearekin lehian dagoen jarduerarik ez burutzea, ez eta burutzen dituztenekin lankidetzan aritzea, Artekazkitza Kontseiluak berariaz horretarako baimena ematen duen kasuetan salbu.
  - e) Kooperatibaren jardura eta datuak isilpean gordetzea, horien berri zabaltzeak kooperatibaren interesei kalte egin baldin badiezaieke.
  - f) Kapital sozialerako ekarpenak egitea aurreikusitako baldintzen arabera, eta aldizkako kuotak ordaintzea zehazten diren epeetan hala erabakiz gero.
  - g) Galeren egozketan Batzar Nagusiak erabakitako kopuruarekin parte hartzea.
  - h) Dei egiten zaienean, bazkide erabiltzaileek beren seme-alaba edo tutoretzapekoen arduradunek hitzartutako bileretara joan beharko dute, beren seme-alaba edo tutoretzapekoak kooperatiban gauzatzen ari diren ikasketetan zein egoeratan dauden edo zein aurrerapen egin dituzten azaltzeko eta jakinarazteko. Bilkuretara joan beharko dute, halaber, deialdia kooperatibako beste zerbitzuetako hartzaileei egiten zaienean.
  - i) Lege eta Estatutu aginduetatik eta Kooperatibako organoek hartutako erabakietatik sortzen diren gainerako betebeharrak betetzea.

## 12. ARTIKULUA. BAZKIDEEN ESKUBIDEAK

**BAT.-** Bazkideek honako eskubideok izango dituzte:

a) Kooperatibako organoetako karguetarako hautagaiak hautatzea edo horietarako hautatua izatea.

b) Batzar Nagusian edo batzarkide diren gainontzeko organoetan hartuko diren akordio guztietan proposamenak egitea eta hitz eginez eta botoa emanaz parte hartzea.

c) Kooperatibako jarduera guztietan bereizkeriarik gabe parte hartzea.

d) Hurrengo artikuluan aurreikusitakoaren kaltetan izan gabe, eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazioa jasotzeko eskubidea.

e) Bidezkoa bada, baltzu-kapitalean egindako ekarpenak eguneratu eta itzultzea eta ekarpenen interesak jasotzea 45. artikulua dionari jarraiki.

f) Bazkide erabiltzaileek, aldizka, kooperatibak horretarako izendatutako arduradunaren bidez, beren seme-alaba edo tutoretzapekoen bilakaeraren berri izatea, aurretik hitzartutako bilera pertsonalizatuaren bidez. Informazio eta arreta hori kooperatibako beste zerbitzuetako erabiltzaileei ere eskainiko zaie.

g) Kooperatibako organo sozialek balio osoz hartutako erabakiak betearaztea.

h) Lege eta estatutuen ondoriozko gainontzekoak.

**BI.-** Eskubide hauek bazkide guztiek izango dituzte eta Kooperatibako organoek balio osoz onartutako akordioen eta indarreko arauen arabera erabiliko dira.

## 13. ARTIKULUA. INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA

**BAT.-** Bazkideek informazioa jasotzeko eskubidea legean, estatutuetan edo Batzar Nagusiaren erabakietan xedatutakoaz baliatuz erabili ahal izango dute, horietan guztietan, egoki irizitako bideak jarri ahal izango dira bazkideen eskubide hau bideratzea erraztu eta gauzatzeko.

**BI.-** Bazkideak hurrengo eskubideak ditu:

a) Kooperatibaren Estatutu Sozialen eta Barne-Araudiaren kopia bat eskatzeko.

b) Kooperatibako Bazkideen Errolda-Liburua eta Batzar Nagusiaren bilera-agiriaren liburua aztertzeko eskubidea. Hala eskatzen bada, Batzar Nagusiko bilera-agiriaren eta bertan hartutako akordioen egiaztatutako kopia eta, zio eta guztiko eskariaren ondoren, bazkide erroldako liburuan egindako izen-emateen egiaztapena eman beharko zaizkio.

c) Artezkaritza Kontseiluak harturiko -eta bazkideari berari dagozkion- erabakien kopia ziurtatua eskatzeko.

d) Kooperatibarekiko bere egoera ekonomikoaz informazioa eskatuko balu Artezkaritza Kontseiluak hilabeteko epean eman egin beharko lioke.

**HIRU.-** Kooperatibaren jarduera edo emaitzetako edozein alderdiri buruz, beharrezkotzat jotzen dituen argitasunak edo txostenak Artezkaritza Kontseiluari idatziz eskatu ahal izango dizkio. Idazkia aurkezten denetik hamabost egunera egingo den lehendabiziko Batzar Nagusian eman beharko da erantzuna.

**LAU.-** Urteko kontuez edo edozein proposamen ekonomikoz deliberatu bide den Batzar Nagusian, bazkideek hitzez eskatu ahal izango dituzte hauei buruzko azalpen eta argibideak, eta horretarako, kontuak agertzen dituzten dokumentuak agerian jarriko egon beharko dute Kooperatibaren egoitza sozialean, deialdiaren epean zehar bazkideek aztertu ahal izan ditzaten.

Epe horretan, halaber, egoitza sozialean bertan, bazkideek Artezkaritza Kontseiluaren txostena, eta, kasuan kasu, kanpoko kontu-ikuskaritzaren txostena, aztertu ahal izango dituzte.

Epe honetan zehar eta Batzarra ospatu baino bost egun lehenagoko epean, aipaturiko azalpenak Batzarrean bertan erantzun daitezke, idatziz eskatu ahal izango dituzte.

**BOST.-** Aurreko atalean xedatutakoa baztertu gabe, boto guztien %10 gutxienez biltzen duten bazkideek beharrezkotzat jotzen duten informazioa idatziz eskatu ahal izango dute noiznahi. Artezkaritza Kontseiluak gehienez ere hogeita hamar eguneko epean eman beharko du informazio hori idatziz.

**SEI.-** Edonola ere, Artezkaritza Kontseiluak Kooperatibaren aldagai sozio-ekonomiko nagusien berri eman beharko die bazkideei hiru hilabete oro gutxienez, egokitzat jotzen dituen bideak erabiliz.

**ZAZPI.-** Artezkaritza Kontseiluak informazioa emateari uko egin ahal izango dio, eskaria gehiegizkoa edo oztopagarria baldin bada edo informazioa ematea Kooperatibaren zilegizko interesentzako arriskutsua baldin bada bakarrik. Hala ere, salbuespen hau ez da bidezkoa izango ukatutako informazioa Batzar Nagusian eman behar denean eta informazio-eskaera bertan dauden eta ordezkaturik dauden bazkideen erdiak baino gehiagok babeste duenean, eta, gainerako balizkoetan, informazio eskatzaileek ezarritako errekursoaren ondorioz Helegite Batzordea horrela erabakitzen duenean.

Ezetzari aurka egin ahal izango diote eskari-egileek, Ekainak 24ko 4/1993 Legearen 25. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**ZORTZI.-** Ondoko garantia-sistema hau ezartzen da:

**a)** Informazioa eskatzen duten bazkideek eskaria izenpetu beharko dute, beren nortasuna behar bezala ezagutarazi eta eskariaren arrazoiak bertan azaldu.

**b)** Eskaria bazkide guztien %20k edo lan-bazkideen heren batek gutxienez izenpetzen badu, Artezkaritza Kontseiluak ezezko erabakia hartu ahal izateko, bi hereneko gehiengo kualifikatua beharko du.

**c)** Informaziorik ez emateko Artezkaritza Kontseiluak hartutako erabakiaren aurka egin daiteke Helegite Batzordearen aurrean, erabakia hartzen denetik hogeitaz eguneko epean.

Errekurtsua Batzar Nagusian ebatziko da, jasotzen denetik aurrera egiten duen hurrengo saioan, interesatuari entzun ondoren, isilpeko bozketaz.

**BEDERATZI.** Oro har, honako berme hauek ezarri dira bazkideen informazio-eskubidea errespetatzeko, Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 24. eta 25. artikuluetan jasotakoaren arabera:

- a) Artezkaritza Kontseilua da bazkideen informazio-eskubidea bermatzeko eskumenerako organoa.
- b) Artezkaritza Kontseiluak artikuluko honetako zazpigarren idatz-zatian aurreikusitako kasuetan soilik ukatu ahal izango du informazioa, arrazoiak emanda, eta idatz-zati horretan jasotako salbuespenarekin.
- c) Bazkideak lortutako informazioa erabiltzeko izango dituen muga bakarrak Euskadiko Kooperatibei buruzko abenduaren 20ko 11/2019 Legean, oro har aplikatu beharreko beste arau batzuetan eta estatutu hauetan adierazitakoak izango dira.
- d) Kooperatibak bazkideekiko harremanetan erabiltzen dituen formatu, programa edo lengoia informatikoei buruzko informazioa eskatu ahal izango da.
- e) Eskatutako informazioa formatu elektronikoa bidali ahal izango da.
- f) Eskatzeko erabilitako Euskadiko hizkuntza ofizial berean bidali beharko da informazioa, eta eskatzaileak berariaz hala eskatzen badu.

**HAMAR.-** Zehazki, Entitatearen desegitearekin, Kooperatibaren hezkuntza jardueraren uztearekin, hezkuntza-titularitatearen edo Kooperatibaren ondarea edozein organismo publiko nahiz pribaturi uztearekin loturik, Kooperatibak egindako edonolako gestio edo ekimenen berri eman beharko zaio hauek gertatu hala Zaintza Batzordeari eta egingo den lehenengo Batzar Nagusiari.

## **14. ARTIKULUA. BAZKIDEAREN BORONDATEZKO BAJA**

**BAT.-** Bazkide oro nahi duenean irten ahal izango da kooperatibatik bere borondatez, idatziz ohartarazi behar dituelarik Artezkaritza Kontseilua -sei hileko aurrerapenez pertsona fisikoek eta urtebeteko aurrerapenez pertsona juridikoek

**BI.-** Aurrez abisu emateko epea ez betetzea, edo kooperatiban bazkide izatea eskatzen den gutxienerako epea bete gabe baja ematea, arrazoitu gabeko bajatzat hartuko da, Artezkaritza Kontseiluak, kasuaren zergatiak aztertuta, bestelakorik esan ezean. Horretaz gainera, bazkideari Kooperatiban egin beharreko lan eta zerbitzu guztiak betearazteko aukera ere bada, eta baita kalte-ordainak eskatzeko aukera ere.

Artezkaritza-kontseiluari dagokio baja bidezkoztat edo bidegabetzat kalifikatzea. Gehienez ere hiru hilabeteko epearen barruan formalizatu behar da kalifikazioa, artikuluko honetako 1. atalean aipatzen den aurreabisua jakinarazten denetik kontatzen hasita. Kalifikazioa idatziz jakinaraziko zaio bazkide interesdunari. Administratzaileek jakinarazpenik egin gabe igarotzen bada epe hori, bidezkoztat joko da baja.

**HIRU.-** Bazkide izaera galtzeak jarduera uztea (lan-bazkideak), zerbitzuak erabiltzeari uztea (bazkide erabiltzaileak), kooperatibarekiko lankidetzat uztea (bazkide laguntzaileak) edo partaidetzat uztea (bazkide ez erabiltzaileak edo inaktiboak) dakar berarekin.

## 15. ARTIKULUA. BAZKIDEAREN DERRIGORREZKO BAJA

**BAT.-** Kooperatiben Legean nahiz Estatutu hauetan galdatutako beharkizunen bat galtzen duen bazkidea derrigorrez baja izango da. Bazkideen derrigorrezko bajak gauzatzeko kausak ondorengoak izango dira:

- . Bazkide izateko legezko baldintzak galtzea
- . Elkartearikiko harremanaren zehaztutako iraupena amaitzea
- . Kapital sozialean egiteko derrigorrezko ekarpenei buruzko betebeharrak ez betetzea.
- . Batzar Nagusiaren erabakia, ekonomia, teknologia edo ezinbesteko arrazoiak direla eta.

- . Legez ezarritako adinean erretiratzea, lan-bazkideen kasuan.
- . Guztizko ezintasun iraunkorra, lan-bazkideen kasuan.
- . Erabateko ezintasun iraunkorra, lan-bazkideen kasuan.
- . Kanporaketa.
- . Heriotza

**BI.-** Artezkaritza Kontseiluak erabakiko du, kaltetuarekin hitz egin ondoren, derrigorrezko baja, beren kabuz, beste edozein bazkidek eskatuz gero edo baja hartu beharko duenak berak hala eskatuz gero.

**HIRU.-** Artezkaritza Kontseiluaren akordioa bete egin beharko da behin Helegite Batzordeak berretsi ondoren, edo horiei errekurtsioa aurkezteko epea bukatuz gero.

**LAU.-** Bazkide izateko baldintzak galtzen direnean derrigorrezko baja arrazoizkotzat hartuko da, baina ez baldintza horrek kooperatibarekiko betebeharrak bete nahi ez direlako edo derrigorrezko bajaz behar ez bezala baliatu nahi delako galdu badira.

**BOST.-** Bazkide bat ez badago ados Artezkaritza Kontseiluak bere borondatezko bajaren edota derrigorrezko bajaren kalifikazioari edo ondorioei dagokionez hartutako erabakiarekin, bazkide horrek errekurtsioa aurkeztu ahal izango du, Estatutu hauetako 21. artikuluko Bi eta Lau ataletan xedatutakoaren arabera.

## 16. ARTIKULUA. BAZKIDE INAKTIBOAK EDO EZ ERABILTZAILEAK

Gutxienez sei urteko antzintasuna dute eta edozein kausa justifikatu dela-eta, kooperatiban behin-betiko lan egiteari uzten dioten lan-bazkideek eta kooperatibak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeari dagoeneko utzi dioten seme-alaben edo tutoretzapekoen bazkide erabiltzaile-gurasoek edo kooperatibak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeari dagoeneko utzi dioten bazkide-erabiltzaile-ikasleek, bazkide inaktibo eta ez-erabiltzaile izaera eskuratuko dute hurrenez hurren, betiere ondoko arau hauetara doitzen direnean:

a) Artekarrizta Kontseiluari espresuki eskatu beharko diote, laneko bajarekin batera lan-bazkideen kasuan, eta bazkide erabiltzaile gisako baja eskaerarekin batera. Erabakia Artekarrizta Kontseiluak hartuko du, eta Helegite Batzordearen aurrean aurka egin lekiok erabakiari, eta horrek, gehienez, hogeita hamar eguneko epean erabaki beharko du, helegitea jasotzen duenetik hasita, eta interesatuak dioena entzun ondoren. Horren ondoren, ez legoke aurrerago helegitea aurkezteko aukerarik.

b) Kooperatibaren martxaz informatuak izateko eskubidea izango dute eta Batzar Nagusian parte hartzeko ere bai, baina honetan, hauen botoek ezin izango dute boto sozial guztien hamarrena baino gehiago osatu.

c) Gainerako eskubide eta betebeharren erabilera, bazkide erabiltzaileei aplikatzen zaizkien kideko irizpideen arabera burutuko da.

## **17. ARTIKULUA. BAZKIDE LAGUNTZAILEAK. ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.**

**BAT.-** Elkartearen Kooperatiba-xedearen lorpenean, eremu sozial nahiz kooperatiboan, lagun dezaketen pertsona fisiko edo juridikoak.

**BI.-** Bazkide laguntzaileei buruzko onarpen erabakiak, behin-behinekoak izan daitezkeenak, Artekarrizta Kontseiluak hartuko ditu eta ospatuko den lehen Batzar Nagusian berronetsiko dira.

**HIRU.-** Artekarrizta Kontseiluak hartutako erabakiek onartutakoen elkarlan baldintzak eta gainontzeko eskubide eta betebeharrak finkatuko dituzte. Dena den, 11. eta 12. artikuluetan aipatzen diren eskubide eta betebeharrak izango dituzte baldin eta bat badatoz adostutako elkarlan eta gainerako baldintzekin.

**LAU.-** Bazkide hauen kopuruak, elkarte kooperatiboak ez diren bitartean, inolaz ere ez dute eduki ahal izango botoen herena baino gehiago, ez Batzar Nagusietan ezta Artekarrizta Kontseiluan ere.

## **III. KAPITULUA. DIZIPLINA-ARAUBIDEA**

### **18. ARTIKULUA. BAZKIDEEN HUTSEGITE-MOTAK**

**BAT.-** Bazkideen hutsegite sozialak, duten garrantziaren eta maleziaren arabera, oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

**BI.-** Hutsegite sozial oso larriak izango dira:

a) Kooperatibaren interes material edo ospe sozialari kalte nabarmena egin diezaieketen egintzak edo jarduerak zertzea, hala nola elkarteari lehia egiten dioten eragiketak bultzatzea,

ekarpenetan edo prestazioetan iruzur egitea eta Artezkaritza Kontseiluko kideei edota elkartearen ordezkariari begirune falta nabaria izatea.

**b)** Dokumentuak, sinadurak, zigiluak, ikurrak eta antzeko datuak faltsifikatzea, kooperatibak bazkideekin edo hirugarrenekin dituen harremanetarako garrantzizkoak izanik.

**c)** Kooperatibaren ezkutuko dokumentuen isilpekotasuna haustea, edota derrigorrez isilean gorde beharreko datuak kanpotarrei erakustea.

**d)** Artezkaritza Kontseiluari, Zaintza Batzordeari, Helegite Batzordeari, Kontseilu Sozialari edo horietako kideei dagozkien egitekoak nork beretzat hartzea.

**e)** Bazkide izaeraz aprobetxatuz, jarduera espekulatiboak edo legearen aurkako jarduerak garatzea.

**f)** Estatutu Sozial hauetako 11. artikuluan ezarritako obligazioak behin eta berriro ez betetzea, edo kooperatibaren interes material edo ospe sozialari kalte nabarmena egin diezaioketen egintzak edo jarduerak zertzea.

**g)** Kooperatibako beste bazkideei edota -kasuan kasu- langileei, ahoz edo ekintzez egindako tratu txarrak, Elkartearen organoen batzarretan edota helburu soziala garatzeko beharrezkoak diren lanak, jarduerak edo eragiketak burutzean.

**h)** Hutsegite larrietan berrerortzea, urtebeteko epearen barruan.

**HIRU.-** Hutsegite sozial larriak izango dira:

**a)** Batzar Nagusira, dei egin ondoren, bidezko kausarik gabe ez agertzea, azken hiru urteetan aipatutako organoaren bilkuretara ez agertzeagatik bi aldiz hutsegite arinagatik zigortua izan denean.

**b)** Kargu sozialetarako aukeratuak izan ondoren, arretaz ez betetzea kargu horiek.

**c)** Hutsegite arinetan berrerortzea, urtebeteko epearen barruan.

**LAU.-** Hutsegite arinak izango dira:

**a)** Deia jaso arren, ez joatea, bidezko arrazoirik gabe, Batzar Nagusietara.

**b)** Jakinarazpenei dagokien helbidea aldatzekotan, Kooperatibako idazkariari aldaketa hori ez jakinaraztea, gertatu eta bi hilabeteko epearen barnean. Kooperatibaren ordena eta garapen onerako ezarritako arauak ez betetzea.

**c)** Ezin desenkusatzeko ez-jakiteagatik Estatutu eta Araudietako aginduak eta funtzionamendu-arauak ez betetzea, behin behintzat.

**BOST.-** Bazkide bat berrerorle bezala hartzeko, gutxienez zigor irmo bat duen espedientea izan beharko du.

Helegite Batzordeak helegitearen ebazpenean zigorra kentzen badu, espedientea sortu duen ekintzan ezingo da berrerortzea aintzat hartu.

## 19. ARTIKULUA. HUTSEGITE SOZIALENGATIKO ZIGORRAK

**BAT.-** Hutsegite arinengatik, ahozko eta idatzizko ohartarazpena.

**BI.-** Hutsegite larriengatik:

a) Idatzizko ohartarazpena; bertan, administratzaileen irizpideen arabera jendaurrean azal daitekeela adieraziz.

b) Urtebetez, hezkuntza edo kooperatibaren sustapenerako diru-poltsaren gain doazen zerbitzuetatik kanpo geratzea.

c) Urtebeteko epean, boto eskubidea kentzea.

d) Jarraian izandako bi batzar ezberdinetan, administratzaile edo kooperatibaren edozein giza organotan aukeratua izateko gaitasungabetzea.

**HIRU.-** Hutsegite oso larriak:

a) Honako eskubide sozial hauek kentzea hiru urte arte: boto eskubidea eta organo sozial ezberdinetan aukeratua izateko eskubidea.

b) Egozpena.

## 20. ARTIKULUA. ZIGOR-PROZEDURA

**BAT.-** Hutsegite sozialak direla eta bazkideak zigortzeko, kasu orotan, ondoko arau hauen araberako espediente egokia irekiko da:

a) Hutsegite arinetan, Artezkaritza Kontseiluak, hutsegite-mota honetan barne hartzen diren gertaera edo hutsegiteen berri duenean, instruktore bat hautatuko du. Instruktore hori arduratuko da, kasuan kasu, bazkide erruztatuaren aurkako karguen plegua formulatzeaz. Bazkide erruztatuari hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa eta zehapen-proposamena jakinaraziko zaizkio idatziz. Bazkideak deskargua egin ahal izango du jakinarazpenetik hasi eta 10 eguneko epean. Deskargua Artezkaritza Kontseiluari aurkeztu ahal izango dio bazkideak. Azkenik, organo honek behin betiko kalifikazioa eta zigorra erabaki aurretik, interesatuari entzun beharko zaio nahitaez. Interesatuari entzun ondoren, interesatua Artezkaritza Kontseiluaren deialdira aurkeztuko ez balitz salbu, Artezkaritza Kontseiluak erabakiko ditu dagokion behin-betiko kalifikazioa eta zehapena, gehienez ere hilabeteko epean. Hori guztia Euskadiko Kooperatiben Legeko 52. artikuluan xedatzen den aurkaketa bidearen bidez aurka egiteko aukeraren kaltetan izan gabe.

b) Hutsegite larri edo oso larrietan jarraituko den prozedura hutsegite arinetarako aurreikusitakoaren berdina da, salbuespen batekin: Artezkaritza Kontseiluaren zigor erabakiari errekurtsioa jarri ahal izango zaio, eta ez du kooperatiba barruko bidea agortzen. Artezkaritza Kontseiluaren zigor-erabakiaren aurka Helegite Batzordearen aurrean, berau aurkeztu eta hogeita hamar eguneko epean. Helegite Batzordearen erabakiak kooperatibaren barneko bidea agortzen du, Euskadiko Kooperatiben Legeko 41. artikuluan ezarritako bide prozesalean inpugnatzeko interesatuak beti izango duen eskubidea eragotzi gabe.

**BI.-** Hutsegite txikiak hilabetera geratuko dira indarrik gabe, larriak bi hilabetetara eta oso larriak hiru hilabetetara.

Arau-hausteen preskripzio-epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da kontatzen.

Arau-hauste jarraituak edo iraunkorrak badira, jokabide arau-hauslea amaitzen den unetik hasiko da epea kontatzean. Zehapen-izaerako prozedura bat hasteak, interesduna haren jakitun dela, etengo du preskripzioa, eta berriz ekingo litzaioke preskripzio-epeari zehapen-espeditentea geldituta balego, ustezko erantzuleari ezin egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, ebazpenik eman edo jakinarazi gabe, lau hilabeteen baino gehiagoan.

**HIRU.-** Errekurtsoa jarri gabe, jartzeko epea amaitzen denetik edo behin-betiko erabakia hartzen denetik aurrera izango dira eraginkorrak zigor guztiak.

## 21. ARTIKULUA. EGOZPENA

**BAT.-** Egozpena Estatutuetan aurreikusitako falta oso larriengatik erabaki ahal izango du Artezkaritza Kontseiluak, horretarako izapidetutako espeditentearen bidez eta interesatuari entzun ondoren.

**BI.-** Egozpen-erabakiaren kontra bazkideak errekurtsoa ezarri ahal izango du, jakinarazpena hartu zuenetik hogeita hamar eguneko epearen barruan, Helegite Batzordearen aurrean.

Helegite Batzordearen aurrean ezarritako errekurtsoa, interesatuari entzun ondoren erabaki behar da, errekurtsoa aurkezten duenetik aurrera hark duen hurrengo saioan, isilpeko bozketaz eta gai zerrenda aztergai gisa sartua izan ondoren.

**HIRU.-** Helegite Batzordearen berrespenaren jakinarazpena jasotzen denetik edo errekurtsoa ezartzeko epea amaitzen denetik aurrera, egozpen-erabakia eraginkorra izango da.

Hala ere, lan-bazkideak kooperatiban lan egiteari utziko dio Artezkaritza Kontseiluaren egozpen-erabakiaren egunetik. Behin-behinekoz gordeko du lan aurrerapenerako eskubidea, lanean arituko balitz bezala.

**LAU.-** Egozpen-erabakiari, Helegite Batzordeak berretsi ondoren, aurka egin ahal izango zaio, jakinarazpenetik bi hilabeteko epean, Euskadiko Kooperatiben Legeko 41. artikuluan aipatzen den prozesuaren bidez.

**BOST.-** Era berean, lan-bazkideak Batzar Orokorrak Barne Arautegian, eta horrelakorik ezeean, Batzar Orokorraren berriazko akordio bidez onartzen dituen hutsegite sozial eta laboral oso larriak direla eta egotzi ahal izango dira. Lan-bazkide egotziak errekurtsoa aurkeztu ahal izango du, behin barruko errekurtsoak agortu ondoren, Lan-eskumenaren aurrean. Helburu horretarako, egozpen-erabakiaren jakinarazpena egozpen-gutunarekin berdindu daiteke.

## **22. ARTIKULUA. BARNE-FUNTZIONAMEN-DUAREN ANTOLAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO ELEMENTUAK.**

**BAT.-** Laneko antolamendu eta lan-bazkideen ordainsariari buruz, ondorengoak dira oinarrizko elementuak:

**a)** Laneko antolamendu eta diziplinaren egikaritzea Zuzendaritza-Gerentziari dagokio, Artezkaritza Kontseiluak emandako ordezkartzaren arabera.

**b)** Lan-bazkideak, betetzen duten lanpostuaren arabera jasoko dituzte lan aurrerakinak

**c)** Lan-bazkideek lan-aurrerakinak aldira jasotzeko eskubidea izango dute, hilabeteko konputuan diru-kopurua urtean lanbide-arteke gutxieneko soldata baino txikiagoa izango ez dela.

**d)** Kooperatibaren emaitza ekonomikoen kontura maiztasun batez ordaintzen diren diru-kopuruak dira lan-aurrerakinak eta, horrenbestez, ez dute soldata-izaerarik. Hauen zenbateko maila, beraz, esandako emaitzen arabera izango da.

**e)** Lan-aurrerakinak, urteko lan-orduak eta 11/2019 Legeko 105.2 artikuluan azaltzen diren gainontzeko gaiak, Artezkaritza Kontseiluak erabakiko ditu, betiere Ikastoletako Lan Hitzarmenak gai hauei buruz dioena errespetatuz. Nahiz eta hori horrela izan, lan-bazkideen lan-aurrerapenak ez dira izango jardueraren eta kategorian profesionalen arabera Ikastoletako Lan Hitzarmenean ezartzen den soldataren ehuneko ehun eta berrogeita hamar (%150) baino gehiagokoak.

**BI.-** Pertsona fisikoei dagozkien zergen arloa lan-bazkideen konturakoa izango da, eta inolaz ere ezingo du Kooperatibak subrogatu.

**HIRU.-** Lan-bazkideen Laneko Erregimenari dagozkion gaiak Ikastoletako Lan Hitzarmenaren arabera arautuko dira; eta kasuan-kasuan, lan-bazkideek kooperatibarekin duten lan harremana egokitu beharko dute, kooperatibaren Barne Araudian ez bada, Batzar Nagusiaren berariazko akordioaren arabera.

**LAU.-** Gizarte Segurantzaren onuraz baliatu ahal izan daitezten, lan-bazkideak -bai finkoak, bai proba-aldian daudenak- Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzea aukeratu du kooperatibak.

**BOST.-** Kooperatibako soldatapeko langileek ezingo dute jardueraren eta kategorian profesionalaren arabera aplikagarria den hitzarmen kolektiboan ezartzen den soldataren ehuneko ehun eta berrogeita hamar baino gehiagoko soldatarik jaso.

# IV. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA KUDEAKETA

## 23. ARTIKULUA. ELKARTEKO ORGANOAK

**BAT.-** Kooperatibako organoak hauek izango dira:

- a) Batzar Nagusia.
- b) Artezkaritza Kontseilua.
- c) Zaintza Batzordea.
- d) Helegite batzordea
- e) Kontseilu soziala

Kooperatiba organo horietan gizonen eta emakumeen ordezkaritza orekatua izaten saiatuko da, oreka horretara iristeko neurriak bultzatuz.

**BI.-** Kooperatibak bere operatibotasun eta garapenerako komenigarritzat jo bezainbat organo sortu ahal izango du, Barne Araudian zehazten diren funtzio eta ahalmenekin, legeak espresuki emandakoak izan ezik.

Zehazki, kooperatibak Administrazio Publikoarekiko hezkuntza-kontzertuen erregimenean horri dagokionez ezartzen diren eskakizunak betetzeko behar hainbat organo edukiko ditu.

## 24. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIA

**BAT.-** Batzar Nagusia bazkideen batzarra da, bere eskumeneko gaiak eztabaidatu eta erabakitzeke bildua.

Batzar Nagusiak hartutako erabakiek hartzen diren egunean bertan izango dute eragina eta bazkide guztiek bete beharko dituzte.

**BI.-** Jarraian datozen arloetan akordioak hartzea Batzar Nagusiaren ardura izango da soil-soilik:

a) Artezkaritza Kontseiluko, Zaintza Batzordeko, Helegite Batzordeko, Kontseilu Sozialeko kideak eta kitatzaileak, isilpeko bozketaren bidez, izendatu eta kargutik kentzea.

b) Kontu-ikuskatzaileak izendatu eta kargutik kentzea.

c) Elkartearen kudeaketa aztertu, urteko kontuak onartu eta gaindikinak nola banatu eta galerak nola egotzi erabakitzea.

d) Derrigorrezko ekarpen berriak erabakitzea eta kapitalean egindako ekarpenek eta aldizkako eta aparteko kuotek sortzen dituzten interesak finkatzea.

e) Kooperatibaren Estatutuak aldatzea.

f) Bigarren mailako kooperatibak, kooperatiba-bazkunak eta antzeko erakundeak eratzea.

g) Kooperatiba beste batzuekin bateratu, banatu, eraldatu edo desegitea.

h) Kooperatibaren ekonomia, antolaketa eta egitekoen egituretan oinarritzko aldaketak eragin ditzaketen ondorengo erabakiak hartzea:

. Kooperatiba hezkuntza-sare publikoan sartzea.

. Kooperatibaren ondasun aktibo eta pasiboak besterentzea.

. Elkartearen helburua aldatzea, Kooperatiba sortzeko unean indarrean zeuden jarduerak desagerrarazten badira.

. Kooperatiba-maila aldatzea.

i) Kooperatibako Barne-araudia onestea eta aldatzea.

j) Legeak hala ezartzen duen gainontzekoetan, erabakiak hartzea.

**HIRU.-** Batzar Nagusiak kooperatibarentzat interesgarriak diren gai guztiez eztabaidatu ahal izango du, baina behartze-indarreko erabakiak, lege honen arabera, soilik elkarteko beste organo baten aginpidekoak ez diren arloetan bakarrik hartu ahal izango ditu.

**LAU.-** Artikulu edo legezko arau honen arabera Batzar Nagusiari dagozkion aginpideok ezingo dira eskuordetu, artikulu honetako Bi puntuko f) atalean zehaztutako kooperatibak integratzeko prozesuetarako aurreikusitakoetan izan ezik.

## 25. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

**BAT.-** Ohiko nahiz Ohiz kanpoko Batzar Nagusirako deialdia Artezkaritza Kontseiluak egingo du.

**BI.-** Ohiko Batzar Nagusia elkartearen ekitaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteak igaro baino lehen egin beharko da. Epe hori igaro eta Batzar Orokorra egiten ez bada, edozein bazkidek notarioaren bidez, edo beste edozein bide fede-emaile erabiliz, deia egin dezatela eskatu ahal izango dio Artezkaritza Kontseiluari. Eskaera jaso eta egunetik hamabost egun igaro eta deirik egiten ez badu, bazkideak batzarrerako deia egin dezala eskatu ahal izango dio elkartearen egoitza dagoen lekuko lehen auzialdiko epaileari. Honek deia egin eta batzarreko burua nor izango den erabakiko du. Batzar Nagusi hau epez kanpo deitutakoa izan arren, ohikoa izango da.

**HIRU.-** Ohiz kanpoko Batzar Nagusia noiznahi bilduko da, Artezkaritza Kontseiluak deia eginez edo Zaintza Batzordeak nahiz boto sozialen gutxieneko %20a ordezkatzan duten bazkideek eskatuz. Eskaera Artezkaritza Kontseiluari bide fede-emaile batez egin beharko zaio. Eskaera horrek aztergaiak eta eztabaidatu beharreko proposamenen gai zerrenda barneratutak ditu. Eskaera jaso denetik hogeita hamar eguneko epearen barruan batzarrerako deialdia egingo ez balitz, deialdi judiziala eskatu ahal izango da aurreko apartatuak aurreikusten duenaren arabera.

**LAU.-** Boto guztien ehuneko hamar baino gehiago ordezkatzeko duten bazkideek, deialdia egin eta hurrengo bost egunak igaro baino lehen, gai-zerrendan gai bat edo gehiago sartzeko eskatu ahal izango dute, Artezkaritza Kontseiluari zuzendutako idatzi baten bidez. Artezkaritza Kontseiluak gai horiek kontuan hartu beharko ditu, eta gai zerrenda berria argitaratu beharko du, legeak eskatzen duen bezala, Batzar Nagusia izan baino lau egun lehenago gutxienez. Batzarraren bilera-eguna ezin izango da inola ere atzeratu.

**BOST.-** Batzarrerako deia Elkartearen egoitza sozialean eta dituen ikastetxe desberdinetako iragarki tauletan iragarriz egingo da. Era berean, Gipuzkoan hedapen zabala duten egunkaritan batean, lege-xedapenez nahitaezkoa den kasuetan.

Kooperatibak webgune korporatibo bat baldin badu, sozietatearen webgunean iragarri ahal izango du batzar orokorrerako deialdia, betiere batzar orokorrak hartu badu webgunea sortzeko erabakia eta Euskadiko Kooperatiben Erregistroan kooperatibarentzat irekitako orrian jasota badago erabaki hori. Horrela bada, eta deialdia web korporatibo bidez egiten bada ez da derrigorrezkoa izango egunkari batean argitaratzea kooperatibak legez bete behar hori bete behar badu.

**SEI.-** Deialdiaren argitarapena edo jakinarazpena, gutxienez hamar egun eta gehienez hirurogei egun aurrez egin beharko da.

**ZAZPI.-** Deiak, gutxienez ere aditzera emango ditu data, bilkura lekua, lehen, bigarren eta hirugarren deialdien orduak, hiruren artean gehienez ordu erdiko aldeaz, eta eguneko gai zerrenda nahikoa zehaztasun eta xehetasunez adieraziko du.

**ZORTZI.-** Atal honetako aurreko apartatutan erabakitakoaren kaltetan ez bada, deialdi gabeko batzarra osatu ahal izango da, bazkide guztiak bilduta edo ordezkaturata egonik, aho batez Batzar Unibertsala eratzea erabakitzen baldin badute; denek onartu eta izenpetu beharko lukete gai-zerrenda eta bertaratutakoen zerrenda, baina gero ez lukete guztiek bertan geratu beharrik izango.

## **26. ARTIKULUA. BATZARRAREN FUNTZIONAMENDUA**

**BAT.-** Batzar Nagusia, Unibertsala denean izan ezik, egoitza soziala finkatuta dagoeneko herrian edo Artezkaritza Kontseiluak izendatutako beste edozein lekutan gauzatuko da, beti ere, justifikatutako arrazoirik baldin badago.

**BI.-** Batzar Nagusia balioz eratuta geratuko da, lehen deialdian botoen gehiengoa bertan edo ordezkaturata dagoenean, bigarren deialdian gutxienez boto sozialen %10 edo ehun boto bertan edo ordezkaturata daudenean eta hirugarren deialdian edozein dela ere bertaratuen edo ordezkaturaten boto-kopurua.

Batzar Nagusiaren deialdia adostu zenean bazkide zirenek bertaratzeko eskubidea izango dute.

**HIRU.-** Bazkide erabiltzaileek beraien burua, beren ezkontideek edo beraiekin antzeko elkarbizitza harremana duten, edota, adinez nagusi edo burujabe diren pertsonen eskuetan utzi dezakete bere ordezkapena, betiere ordezkatu ahal izango dituzte Batzar Nagusietan, betiere ezkontza-loiura edo elkarbizitza hori behar bezala ziurtatzen denean, adinez nagusi edo burujabe diren seme-alaben eskuetan eta Kooperatibako dokumentazio sozialean horrela jasota dagoenean.

Kasu orotan nahitaezkoa izango da Batzar Nagusi bakoitzerako idatzizko ordezkapen baten bidez ziurtatzea, bazkidearen baimen eta sinadurarekin, eta ezkontidearen edo beraiekin antzeko elkarbizitza harremana duten, edota, adinez nagusi edo burujabe diren pertsonen berariazko onarpenarekin eta sinadurarekin.

**LAU.-** Bazkideak, idatziz, bere ordezkotza izaera bereziko beste bazkide bati laga ahal izango dio Batzar Nagusi bakoitzerako.

Batzar Unibertsalean, ordezkapenerako ziurtapenak aurreikusten den Gai-zerrenda jaso beharko du.

Bazkideek ezin izango dute bi ordezkaritza baino gehiago eraman, bereaz gainera. Ordezkaritza errebokatu egin daiteke; ordezkaturakoa Batzar Nagusira joaten bada, errebokatu egingo da ordezkaritza.

**BOST.-** Batzar Nagusiko mahaiburu Artezkaritza Kontseiluko lehendakaria izango da, eta hau ez balego, Lehendakariordeak edo Batzarrak berak hautatuko duen bazkidea.

Mahaiburuari dagokio deliberazioak zuzentzea, bere erantzukizunpean arduratzea desbideraketarik gerta ez dadin edo gai-zerrendaren barnean sartu gabeko gaiak erabakipean jar ez daitezen -espresuki Legez baimendutakoak salbu-, Batzarrean ordena mantentzea eta formalitate legalak bete daitezen zaintzea.

Idazkari gisa, Artezkaritza Kontseilukoak jardungo du, edo hau, ez balego, Batzarrak espresuki hautatuko duenak.

**SEI.-** Gai-zerrendan jaso gabeko gaiak buruzko erabakiak deusezak izango dira, Euskadiko Kooperatiba Legean berariaz dena delako akordio hartzea baimentzen den kasuetan izan ezik.

**ZAZPI.-** Artezkaritza Kontseiluko kideek Batzar Nagusietara joan beharra izango dute. Era berean, bazkide ez direla ere, Artezkaritza Kontseiluak deituta edo gonbidatuta, Elkartearen gaien bilakaera egokiaz interesa duten pertsonak joan ahal izango dira Batzar Nagusietara.

**ZORTZI.-** Idazkariak batzarraldiko akta idatziko du, bertan honako hauek adieraziz: burutzapen lekua eta data, deialdiaren data eta modua, eta testu osoa, beren izenean edo besteren baten ordez etorri diren bazkideen kopurua, lehen deialdian, bigarrenean edo hirugarrenean den, eztabaidatutako gaien laburpena, aktan jaso daitezen eskaera eginez egindako esku-hartzeak, hartutako erabakien edukia, bozketen emaitza eta aktaren onespina, bilera amaitzerakoan gertatu denean.

Bertaratutakoen zerrenda aktaren hasieran azalduko da, edota aktara erantsiko da idazkariak sinatutako eta lehendakariak ontzat emandako eranskinaren bidez.

Akta Batzarrak berak onetsi ahal izango du bilkura amaitutakoan, edo hala izan ezean, hamabost eguneko epearen barruan, lehendakariak eta bilkuran izendatutako bi bazkidek onetsiko dute, idazkariarekin batera izenpetuko dutelarik.

Edozein bazkidek edo Batzar Nagusira azaldutako partaidek, aktaren testu osoaren eta hartutako erabakien ziurtagiriak eskuratzea eskatzeko eskubidea izango dute. Akten ziurtapenak, hauek egiteko datan, idazkari denak egingo ditu, lehendakariak ontzat emanik.

**BEDERATZI.-** Erabakiek, hartzen diren unetik bertatik sortuko dituzte ondorioak.

**HAMAR.-** Inskribagarriak diren erabakiak Kooperatiben Erregistroan aurkeztu beharko dira akta onetsi eta ondorengo hogeita hamar eguneko epean.

## 27. ARTIKULUA. BOTO-ESKUBIDEA

**BAT.-** Bazkide bakoitzak boto bat izango du. Bazkide laguntzaileen multzoak ezingo du boto kopuru osoaren %33 a gainditu; eta bazkide ez-aktibo edo ez-erabiltzaileen multzoak ezingo du boto kopuru osoaren %10 a gainditu. Kooperatiban lan bazkiderik balego, hauei boto kopuru osoaren %30 legokieke, eta gainontzekoena era honetan banatuko litzateke:

- a) Bazkide erabiltzaileak: % 40
- b) Bazkide laguntzaileak: Bazkide bakoitzak boto bat, boto kopuru osoaren %20ko gehienezko muga gainditu ezinik.
- c) Bazkide ez-aktibo eta ez-erabiltzaileak: Bazkide bakoitzak boto bat, baina boto kopuru osoaren %10eko gehienezko muga gainditzerik ez da izango.

Kooperatiba integrala izango balitz, hau da, kooperatiban lan egiten duen langile irakasle eta ez-irakasleen kopuru osoaren %50 baino gehiago lan-bazkide modura sartzen direnean, botoen portzentaia era honetan banatuko litzateke:

- a) Bazkide erabiltzaileak: Bozka kopuru osoaren % 40
- b) Lan bazkideak: Bozka kopuru osoaren %40.
- c) Bazkide laguntzaileak: Bazkide bakoitzak boto bat, baina boto kopuru osoaren %10eko gehienezko muga gainditu ezinik.
- d) Bazkide ez-aktibo eta ez-erabiltzaileak: Bazkide bakoitzak boto bat, bozka kopuru osoaren %10eko gehienezko muga gainditu ezinik.

**BI.-** Bazkideak boto eskubidea ezin izango du erabili, balizko interesen gatazka hauetan:

a) hartu beharreko erabakiak zuzenean eta berari soilik badagokio, adierazitako gehiengoaren parte den kasutan izan ezik.

b) Kooperatibak bultzatutako erantzukizun ekimen baten subjektu denean.

## 28. ARTIKULUA. GEHIENGOAK

**BAT.-** Batzar Nagusiaren erabakiak, balioz emandako botoen gehiengo soilaz hartuko dira, boto zuriak eta abstentzioak kontutan hartu gabe. Euskadiko Kooperatiben Legeak edo Estatutu hauek gehiengo sendoagoa ezartzen duten kasuak salbuesten dira.

**BI.-** Bertan diren botoen eta ordezkatuak bi herenen gehiengo beharko da kooperatiba eraldatzeko, banatzeko, zatitzeko, hezkuntza-sare publikoan sartzeko eta desegiteko erabakiak.

## 29. ARTIKULUA. BATZAR NAGUSIKO ERABAKIEN AURKATZEA

**BAT.-** Batzar orokorraren erabakiak aurkaratu ahal izango dira baldin eta legearen nahiz estatutuen aurkakoak badira edo kooperatibaren kaltetan hartu badira bazkide baten edo gehiagoren zein hirugarren batzuen mesedetan.

Erabakia ezin da aurkaratu baldin eta hura ondorioz gabe utzi bada edo beste erabaki batek baliozkotasunez ordeztu badu.

**BI.-** Aurkaratze-akzioa honako hauek egikaritu ahal izango dute: bazkideek, administratzaileek, zaintza-batzordeko kideek edo interes legitimoa duen bazkide ez den edozein hirugarrenek; aurkaratze-akzioa egikaritzeko aukera urtebetean iraungiko da, salbu eta erabaki horien karia edo edukia ordena publikoaren aurkakoak direnean.

**HIRU.-** Oro har, Kapital Sozietateen Legearen arabera ezarriko da aurkaratze-prozedura. Salbuespenez, baina, demanda-idatzian aurkaratutako erabakia eten dadila eskatzeko, exijituko da zaintza-batzordeak berak edo ondoren azaltzen den ordezkari duten pertsonen eskatzea: bazkideen % 10 ordezkari duten pertsonen, kooperatibak 50 bazkide baino gehiago badu; bazkideen % 15 ordezkari duten, kooperatibak 10-50 bazkide baditu, eta bazkideen % 20 ordezkari duten, kooperatibak 10 bazkide baino gutxiago badu (lehen, zaintza-batzordeak, edo bazkideen botoen %20k).

**LAU.-** Aurkaratze-akzioaren baiespen-epaiak bazkide guztiengan izango du eragina, baina ez die eragingo aurkaratutako erabakiaren ondorioz hirugarren ez-bazkide onustedunek lortutako eskubideei. aurkaratutako erabakia Euskadiko Kooperatiben Erregistroan jasota badago, epaiak inskripzio horren ezerezteagatik aginduko du.

## 30. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUA. IZAERA ETA AHALMENAK

**BAT.-** Artezkaritza Kontseilua, Kooperatibaren ordezkari, gobernu eta kudeaketa organoa da, hauei dagozkien ahalmen guztiak erabiliz, legeak edo Estatutu hauek espresuki Batzar Nagusiari edo beste zenbait organo soziali erreserbatzen dizkietenak ezik.

**BI.-** Ondorengo berariazko ahalmen hauek Artezkaritza Kontseiluari dagozkie:

**a)** Estatutu hauetan aurreikusitakoaren arabera, bazkideen onarpenak eta bajak erabakitzea.

**b)** Erantzukizun osoz Kooperatiba ordezkari, eskuordetzeko ahalmenarekin, edozein motako ekintzatan eta kontratutan, eta bereziki, parte hartuko duen entitateen Batzar Nagusietan.

**c)** Zuzendari-Gerentea izendatzea, eta honek proposatuta, Departamentuetako Zuzendariak. Baita horiek kargutik kentzea, eta beren eskumenak, betebeharrak eta ordainsariak zehaztea. Halakorik balitz, hauen kontrako erantzukizun-akzioak erabiltzea.

**d)** Bazkide diren langileen, eta bazkide ez direnen ekonomia- eta elkarlan-baldintzak hitzartzea.

**e)** Eskubide eta betebeharrak estatutarioekin, lan-bazkideen lan eta diziplina erregimenarekin, eta lanaren antolamenduarekin zerikusia duten arazoei buruzko erabakiak hartzea, beti ere ikastoletako Hitzarmen Kolektiboa aplikatuko delarik baldin eta, lan-bazkideentzat, indarrean dagoen kooperatibetako legedian ebatzitakoarekin bateragarria ez bada.

**f)** Kooperatibaren martxa eratu, gidatu eta ikuskatzea, eta Batzar Nagusiari urteroko gestio-egitamuak eta epe luzerako egitamu estrategikoak aurkeztea, Kooperatibaren politika eta estrategia orokorren proposamenekin, behin Artezkaritza Kontseiluak onetsi ondoren.

**g)** Batzordeko kideen uko-egiteez, plaza hutsen ordezkapenez eta, oro har, organo beraren barne-funtzionamenduaren arauketaz egokia dena erabakitzea, eta halaber, akordioen deuseztasunaren akzioak erabiltzea horretarako bidea legokeenean eta/edo bere eskumenekoak liratekeenean.

**h)** Estatutuetan eta barne-arautegian egoki irizitako aldakuntzak Batzar Nagusiari proposatzea.

**i)** Estatutuak eta barne araudiak egoki aplikatzeko behar diren eginkizun arauak, edo Batzarraren erabakiak gauzatzeko beharrezkoak direnak onartzea.

**j)** Xede sozialaren gauzapenerako beharrezkoak edo komenigarriak liratekeen ekintzak burutzea eta kontratuak ospatzea, ondasun higiezinak erostekoak edo saltzekoak, eskubide errealak eratzekoak -baita hipotekak ere-, eta errentamenduko bereziak ere barne, eta Estatutu hauek kooperatibari zilegi uzten dizkioten negozio eta eragiketa molde guztiak ebatzea.

**k)** Kooperatibari komeni liezazkiokeen kredituen, maileguen eta sinadura-garantiaren eragiketak erabakitzea.

**l)** Entitate publiko eta pribaturen artean abalak eman, eta halaber, erosi, saldu, harpidetu eta jalki zuzenbidez onarturiko edozein motako titulu, zor publiko edo balore higigarriak nahiz higiezinak egoki iruditzen zaion eran eragin ditzakeelarik.

**m)** Ekarpinak harpidetzeko eta Bonuak eta Obligazioak jaulkitzeko beharrezkoa dena erabakitzea, Batzar Nagusiak aurrez erabakia lukeenaren ildotik.

**n)** Fondo erabilgarrien inbertsio zehatza erabakitzea, aurrekontuak eratzea, gastuak baimentzea eta Kooperatibaren ahalduak eta ordezkariak izendatzea, kasu bakoitzean komenigarri iruditzen zaizkion ahalmenak haien esku utziz.

**o)** Urtero Ohiko Batzar Nagusiari Urteko Kontuak aurkeztea, bidezkoa bada, soberakin garbien banaketa edo galeren egozpena proposatzea, eta bazkide berrien nahitaezko ekarpinak, eta aldizkako nahiz aparteko kuotak proposatzea.

**p)** Batzar Nagusietara dei egitea, bere prozesamenduan sortuko diren arazoak konpontzea eta erabakiak gauzatea.

Epaitegi eta Auzitegi arrunt edo berezien aurrean eta Estatuaren eta Lurralde Administrazio Autonomoen, Lurraldeen eta Udalerrien bulego, agintari korporazio edo organismoen aurrean, Kooperatibari dagozkion eskubideak edo akzioak erabiltzeari buruz komenigarri iruditzen zaiena erabakitzea, eta halaber errekurtsio arrunt nahiz bereziak

tarteratzeari buruz, gai hauetan Kooperatibaren ordezkariak eta defentsa eraman dezaten ordezkariak, prokuradoreak edo letratuak izendatuz, hauei ahalmen egokiak behar den eran emanaz, baita adiskidetzetan, espedienteetan, auzitan, erreklamazioetan, errekurtsotan edo edozein moldetako jarduketatan eta edozein prozedura-egoeratan, hau uztea eskatzeko eta beharrezkoa den orotarako, baita zabaltasun edo judizialki amore emateko ere.

r) Funtz eta ondasun sozialez xedatzea, hauek erreklamatzeko, jasotzea, kobratzea, nahiz partikularrengandik nahiz bulego publikoetatik, Kutxa Orokorrean eta interes sozialei komeni zaien lekuan gordailuak eratuz edo atereaz. Banku kontu-korronteak eratzea, nahiz eskudiruz, kredituz nahiz balorez, eta hauei eskudirua edo baloreak ateratzea, eta, oro har, banku-eragiketa mota oro egitea entitate nazional edo atzerriarrekin, baita "Banco de España"-n ere. Korrespontsalen eskumendean dauden Kooperatibaren fondo eta ondasunaz xedatzea. Kanbio-letrak igorri, endosatu, abalatu, onartu, negoziatu eta ordaintzea.

s) Ondorio zehatzetarako edo negozio sozialaren arlo jakin bat eramateko zenbait pertsona eskuordetzea.

t) Halakorik balitz, Kooperatibaren konkurtsoa deklaratzeko eta desegiteko proposamena Batzar Nagusiari aurkeztea, eta prozedura horretan bere eskumenekoak diren fase ezberdinak betetzea.

u) Estatutu hauen interpretazioaz sor daitezkeen zalantzak erabakitzea eta egon daitezkeen hutsuneak betetzea, ospatuko den lehenengo Batzar Nagusiari aditzera emanaz.

v) Estatutu hauetan bereziki jasotakoak.

**HIRU.-** Artezkaritza Kontseiluaren ahalmenak ez dira zerrendatutakoekin amaitzen, eta beraz, ez dira hauei mugatzen, Legez beste organo batzuetarako espresuki izendatuta daudenak ezik beste edozein bere gaia izan baitaiteke.

## **31. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN ERAKETA ETA BERRIKUNTZA**

**BAT.-**Artezkaritza Kontseilua hamasei kidez osaturik egongo da. Hiru artezkarik presidente, presidenteorde eta idazkari karguak beteko dituzte.

**BI.-**Batzar Nagusiak aukeratuko ditu Artezkaritza Kontseiluko kideak, isilpeko bozketan. Boto gehien jaso ditzutenak izango dira artezkarik, bazkide mota ezberdinetakoak, hurrengo pasarteak adierazten duen eran.

11/2019 Legeko 47.6 ezartzen duena aplikatuz, Artezkaritza Kontseilua 16 kidez osatua egongo da: 8 bazkide erabiltzaile, 2 laguntzaile, ez-aktibo edo ez-erabiltzaile 1 (mota honetakoak baleude; ez baleude erabiltzaile batek beteko luke haren lekua), eta 5 lan-bazkide (mota honetakoak baleude; ez baleude, 5 karguok 2 bazkide erabiltzailek eta 3 laguntzailek beteko lukete). Kooperatiba osoa litzatekeen kasuan, alegia, Kooperatibarentzat lan egiten duten irakasleen eta zerbitzuetako langileen %50a baino gehiago egingo balitz lan-bazkide, Artezkaritza kontseilua honela osatuko da: 7 bazkide erabiltzaile, 7 lan-bazkide, bazkide laguntzaile bat, eta ez-aktibo edo ez-erabiltzaile bat (baleude; eta ez baleude, kargu hori bazkide erabiltzaile batek beteko luke. Bazkideek hautatu beharko lukete, bakoitzak dagokion

bazkide-multzoan bozkatzuz, Estatutu hauen 5. artikulua arautu bezala, etorritako edo era egokian ordezkaturiko bazkideek eginiko isilpeko bozketa partzialez, Batzar Nagusia. Hautatuak 4 urteko epea beteko luke eta berrautatu ahalko litzateke). Epea pasatuta, Artezkaritza kontseiluko kideek beren karguetan jarraituko dute hurrengo Batzar Nagusia egin arte.

Hautaketa berean 6 ordezeko hautatuko dira: bi izango dira erabiltzaile; bat, laguntzaile; bat, ez-aktibo edo ez-erabiltzaile (mota honetakoak baleude; ez baleude, erabiltzaile batek beteko luke haren lekua); eta bi, lan-bazkide (ez baleude, ordezeko bat erabiltzailea eta bestea laguntzailea lirateke).

Artezkaritza kontseiluaren erdia bi urtero berrituko da. Lehenbizi, 8 ordezkari, era honetan: 4 bazkide erabiltzaile, laguntzaile bat, ez-aktibo edo ez-erabiltzaile bat (egon ezean, beste erabiltzaile bat gehiago), eta 2 lan-bazkide (baleude; bestela, erabiltzaile bat eta laguntzaile bat gehiago). Eta 3 ordezeko, era honetan; bazkide erabiltzaile bat, bazkide laguntzaile bat eta bazkide ez-aktibo edo ez-erabiltzaile bat (egon ezean, erabiltzaile bat gehiago). Lehenbiziko berriztapena zozketaz egingo da, administrazio organoa osatzen duten bazkide mota ezberdinen artean. Bigarrena, lehenbizikoan atera ez ziren guztiak berrituko dira. Eta honela, behin eta berriz, ondorengo berriztapenetan ere.

**HIRU.-** Eratutako Batzordeak lehendakaria, lehendakariordea eta idazkariaren karguak izendatuak izango ditu, egite duen lehenengo bilkuran. Gainerakoek, Artezkaritza Kontseilu izaera izango dute.

Hala ere, aukera egongo da, beharrezkoa balitz, idazkari kargua kooperatibako bazkide ez den edo kontseilari ez den bati ematea.

**LAU.-** Artezkaritza Kontseiluko kide titularren baten kargua behin betiko hutsik geratuko balitz, kargu hori berehala beteko luke lehenengo ordezekoak. Ordezko hori ordezkatuari, estatutuen arabera, geratzen zitzaion denboraz egongo da karguan.

Utzialdia artikulua honetako HIRU atalean aipatutako karguren batetan gertatzen bada, hori Artezkaritza Kontseiluak berak beteko du izendatutako ordezekoak berehala inkorporatu ondoren. Behin-behineko utzialdia gertatuz gero, Lehendakariordeak hartuko du Lehendakariaren funtzioa. Idazkariaren behin-behineko utzialdian, Artezkaritza Kontseilu gazteenak ordezkatu du.

Kontseilariak hautatu ziren eperako tarte horretan postuen gutxiengo bat hutsik geratzen bada eta ordezkorik ez badago, artezkaritza-kontseiluak bazkideen artean hauta dezake lehen batzar orokorra egiten den arte postu hutsa bete behar duena.

Kontseilari batek bere karguari uko eginez gero, arrazoitu egin behar du bere erabakia, idatziz, eta artezkaritza-kontseiluari jakinarazi; kontseiluak erabakiko du ea justifikatuta dagoen uko egiteko adierazitako arrazoia, eta idatziz jakinaraziko dio interesdunari.

Uko egitearen kalifikazioa batzar orokorrean edo errekurso-batzordean errekurritu ahal izango da, nahitaezko bajarentzat ezarritako baldintza eta epe beretan.

Kontseilari uko-egileak bere jakinarazpenean finkaturiko datan izango ditu ondorioak uko-egiteak; data hori ezin izango da izan jakinarazpena baino lehenagokoa.

Kooperatibaren ustetan uko-egitea ez badago arrazoituta, kalte-galerak ordaintzea eskatu ahal izango zaio, hala badagokio, dagokion administratzaileari.

**BOST.-** Honakook ezin izango dira Artezkaritza Kontseiluaren kideak izan:

**a)** Emantzipatu gabeko adingabeak; epaiketa bidez ezgaituak; Konkurtso Legearen arabera desgaituak, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntzaldia amaitu arte; askatasunaren, ondarearen edo ordena sozioekonomikoaren kontrako delituengatik kondenatuak, segurtasun kolektiboaren kontrako delituengatik kondenatuak, Justizia Administrazioaren kontrako delituengatik kondenatuak edo edozein faltsukeriagatik kondenatuak, bai eta haien kargua dela-eta merkataritza ezin jardun dezaketenak ere

**b)** Funtzionarioak eta administrazioarentzat lan egiten dutenak, kooperatibaren berezko jarduerekin zerikusia duten egitekoak baldin badituzte haietan, epaile eta magistratuak, eta legezko bateraezintasun batek ukitutako gainerako pertsonak

**c)** Beren edo inoren kontura arituz, kooperatibarekin lehian dauden jarduerak burutzen dituztenak, edo modu batera edo bestera kooperatibaren interesen aurkakoak dituztenak, hartatik eragotzi gabe Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legearen 49.4 artikuluan xedaturikoa.

**d)** Zaintza Batzordeko kide direnak

**e)** Helegite Batzordeko eta Giza Batzordeko kideak eta Gerente Zuzendaria.

**SEI.-** Artezkaritza Kontseiluko kideak edozein unetan izan daitezke kargutik kenduak Batzar Nagusiaren akordioz, nahiz eta Gai-zerrendan ez azaldu. Hala ere, balizko horretan beharrezkoak izango dira bertan daudenen eta ordezkatuena botoen bi herenen gehiengo kualifikatu bat kargutik kentzearen alde.

Hori gertatzekotan, bilkura berean, Artezkaritza Kontseilukide berriak izendatuko dira, nahiz eta Gai-zerrendan ez azaldu.

**ZAZPI** - Edozer dela ere Artezkaritza Kontseilukideren bat kargutik kentzen dutenetan, besteekiko eragina Kooperatiben Erroldan izena eman ondoren baino ez du izango.

## **32. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA**

**BAT.-** Artezkaritza Kontseilua gutxienez hilabetean behin bilduko da -Kooperatibaren jarduera nagusia oporrak direla eta eteten denean salbu-, edo deialdi berezitan bere kideetarikoa baten arrazoibidezko eskaeraren ondorioz, eta bere bileretan bere eskumeneko arazo guztiak tratatu eta erabaki ahal izango dira.

**BI.-** Artezkaritza Kontseiluaren bileretarako deiak Lehendakariak egingo ditu, kide bakoitzari zuzendutako idatzi baten bidez.

Aurreko atalean aurreikusitako ezohiko deialdirako eskabideari lehendakariak zazpi eguneko epean erantzuten ez badiu, Artezkaritza Kontseilurako deialdia arrazoibidezko eskaeraren egileak egin ahal izango du, betiere horretarako, gutxienez, Artezkaritza Kontseiluaren heren baten atxikipena lortzen badu.

**HIRU.-** Artezkaritza Kontseiluaren bilera baliozkoa izateko, kideetako erdiak baino gehiagok egon beharko du bertan. Kontseilu honetako bileretara bakoitzak aurkeztu beharko du, ordezkotzarik eman gabe. Erabakiak hartzeko, bertaratutakoen erdiak baino gehiagoren botoak behar izango dira. Lehendakariaren botoa izango da berdinketetan erabakiko duena.

**LAU.-** Bilerako aktan, lehendakariak eta idazkariak sinatuko dutelarik, eztabaidak era laburrean, erabakien testua eta botazioen emaitzak jasoko dira. Horiek Artezkaritza Kontseiluko Akta-liburuan transkribatuko dira.

**BOST.-** Artezkaritza Kontseilura bertaratutakoen bi herenen aldeko botoak behar izango dira gutxienez, jarraian datozen erabakiak hartzeko:

**a)** Jarduera-zentro nagusi bat edo beronen zati garrantzitsu bat itxi edo lekuz aldatzeko.

**b)** Kooperatibaren jardueran murrizketa, hedapen edo berrikuntza nabarmenak eragiteko.

**c)** Kooperatibaren antolaketan garrantzi handiko aldaketak sortzeko.

**d)** Beste erakunde batzuekin, kooperatiba edo bestelakoekin, kooperatibarentzat etengabeko eta balio handiko elkarlana ekarriko duten harremanak sortzeko edo desegiteko.

Lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

**SEI.-** Artezkaritza Kontseiluaren aginpideren baten etengabeko ordezkotza Exekuzio Batzordeari edo Artezkaritza Kontseiluko kide ordezkariaren bati emateko, eta kargu horiek beteko dituzten Artezkaritza Kontseiluak izendatzeko, Artezkaritza Kontseilua osatzen dutenen bi herenen aldeko botoa behar izango da eta ez dute eraginik izango Kooperatiben Erroldan izena eman arte.

### **33. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUARI DAGOZKION XEDAPENAK**

**BAT.-** Artezkaritza Kontseiluko lehendakariari dagozkio:

**a)** Artezkaritza Kontseiluaren izenean elkartea gai mota guztietan ordezkatzea eta Batzordeko nahiz Batzar Nagusiko bileretako buru izatea.

**b)** Botereak xedatzea eta agiriak publiko nahiz pribatuak sinatzea, Artezkaritza Kontseiluak edo Batzar Nagusiak hartutako erabakien arabera.

**c)** Artezkaritza Kontseiluan erabakiak hartzerakoan sor daitezken berdinketak ebaztea bere botoarekin.

**d)** Premiazko izaera duten erabakiak hartzea, horien berri lehenengo Artezkaritza Kontseiluan emanaz.

**e)** Bere sinadurarekin ordainketak baimentzea.

**f)** Artezkaritza Kontseiluak agintzen dizkion ekintza, kudeaketa eta egitekoak gauzatzea.

**BI.-** Lehendakariordeak lehendakaria ordeztuko du eta bere funtzioak izango ditu honek huts egiten duen kasuetan. Era berean, Artezkaritza Kontseiluak eta Lehendakariak agindutako egiteko eta kudeaketak gauzatu beharko ditu, eta, bereziki, Lehendakariak Artezkaritza Kontseiluko beste kideetan eskuordetu ditzakeen kudeaketa horiek.

**HIRU.-** Idazkariari dagokio ondoko funtzio hauek betetzea:

- a) Espedienteak eratztea eta horiek behar bezala bideratzea.
- b) Lehendakariari nahiz lehendakariordeari erreserbatuta ez daude gutun eta agiriak sinatzea.
- c) Batzar Nagusietako eta Artezkaritza Kontseilutarako deialdiak idaztea eta bideratzea.
- d) Aipatutako organoen bilkuretako aktak idaztea.
- e) Honakoen gordetzaile izatea: artxibategia, bazkideen erregistro-liburua, giza-kapitalari eginiko ekarpenak, eta batzar nagusiaren eta artezkaritza kontseiluaren akta-liburuak.
- f) Kooperatibaren liburuei eta agiriei dagozkien ziurtagiriak ematea, lehendakariaren oniritziarekin.
- g) Artezkaritza Kontseiluak ematen dizkion gainerako funtzioak.

## **34. ARTIKULUA. ARTEZKARITZA KONTSEILUKO KIDEEEN ERANTZUKIZUNAK ETA ERANTZUKIZUNAK ESKATZEKO EKINTZAK**

**BAT.-** Artezkaritza Kontseiluko kideek ez dute beren karguarengatiko berariazko ordainsaririk jasoko, funtzio horiek betetzea doakoa baita. Hala ere, beren funtzioak betetzerakoan izan ditzaketen gastuak direla eta, konpentsazio ekonomikoak jaso ditzakete.

**BI.-** Artezkaritza Kontseiluko kideak enpresari fina eta ordezkari zintzoa bezain zuzen arituko dira beren karguetan, eta legearen nahiz estatutuen aurka edo behar bezain ondo egin ez dituzten egintzen kalteen erantzukizuna izango dute.

Administratzaileena izango da legearen edo estatutuen kontrako egintzen ondorioz sorturiko kalteen erantzukizuna, baita karguari dagozkion funtzioak ez betetzean eragindakoena ere, betiere dolo edo erruz jardun badute.

Solidaritate-legez erantzun beharko dute egintza kaltegarria burutu edo horrelako erabakia hartu zuen organoko kide guztiek, erabakia hartzean edo burutzearekin zerikusirik izan ez eta halakorik bazenik ere ez zekitela argi uzteko moduan direnak izan ezik, edo, behin ezagutu, horien aurka argi agertu zirenak izan ezik.

Erantzukizuna berbera izango da ekintza edo erabaki kaltegarria Batzar Nagusiak hartu, baimendu edo berretsi bazuen ere.

Administratzaileen erantzukizuna egitezko administratzaileengana ere zabaltzen da.

**HIRU.-** Artezkaritza Kontseiluko kideei erantzukizunak eskatzeko elkarrearen ekintza kooperatibaren esku izango da; aurrez Batzar Nagusiak gehiengo soilez erabaki beharko du, nahiz eta eguneko gai zerrendan halakorik agertu ez. Batzar Nagusiak edonoiz emango dio baiezkoa nahiz ezezkoa ekintza aurrera eramateari. Ekintza bultzatzea edo aurrera eramateari baiezkoa ematea erabakiz gero, kaltetutako Artezkaritza Kontseiluko kideak kargutik kanpo geratuko dira berez eta besterik gabe.

Erabakia hartu ondoko hiru hilabeteetan kooperatibak berak erantzukizunak eskatzeko ekintzarik hasiko ez balu, edozein bazkidek egin ahal izango luke.

**LAU.-** Ekintza iraungita geratuko da erantzukizuna eskatzeko arrazoi diren egintzak gertatu edo ezagutu ondoren bi urte pasa eta gero.

**BOST.-** Aurreko puntuetan erabakitakoa kontuan izan behar bada ere, guzti horretatik kanpo dira zuzenean bazkideen edo beste inoren kaltetan Artezkaritza Kontseiluko kideek egindakoengatik batzuek edo besteek egin litzaketen norbanako ekintzak.

## **35. ARTIKULUA. ERABAKIEN AURKA EGITEA**

**BAT.** Artekaritza-batzordearen erabakiak aurkaratu ahal izango dira baldin eta legearen nahiz estatutuen aurkakoak badira edo kooperatibaren kaltetan hartu badira bazkide baten edo gehiagoren zein hirugarren batzuen mesedetan.

Erabakia ezin da aurkaratu baldin eta hura ondorioz gabe utzi bada edo beste erabaki batek baliozkotasunez ordeztu badu.

**BI.** Hauek aurkez ditzakete erabaki deusezak aurkaratzeko egintzak:

a) Edozein bazkidek, 60 eguneko epean, haien berri izan zuenetik aurrera kontaturik, betiere ez bada urtebete igaro erabakia hartu zenetik.

b) Artezkaritza-kontseiluko eta zaintza-batzordeko kideek, 60 eguneko epean erabakia hartu zen egunetik zenbatzen hasita.

**HIRU.** Aurreikusita dauden ondorioak izango ditu aurkaratzeak eta batzar orokorraren erabakiak aurkaratzeko estatutuen 29.HIRU xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

## **36. ARTIKULUA. ZUZENDARI-GERENTEA. IZENDAPENA ETA KARGU-UZTEA. BETEBEHARRAK ETA ERANTZUKIZUNAK**

**BAT.** Artezkaritza Kontseiluak izendatu dezake Zuzendari Gerentea, Kooperatibaren jarduera profesionalizatua kudeatzeko helburuarekin.

**BI.** Zuzendari Orokorraren izendapena eta funtzioak ondoko arau hauen arabekoak izango dira:

a) Bere eskumenak Artezkaritza Kontseiluak eskuordetuko ditu beti. Era berean, Artezkaritza Kontseiluaren kontrolpean egongo da, aipatutako organo sozialak onetsitako kudeaketa-xedeak betetzea exijituko zaiolarik.

b) Artezkaritza Kontseilua izango da, halaber, zuzendari-Gerentearen kargua beteko duen pertsona izendatzeaz eta kargutik kentzeaz arduratuko dena. Izendapena eta kargua uztea Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dira.

c) Zuzendari-Gerentearen lan-bazkidea edota besteren konturako langilea izan daiteke.

d) Artezkaritza Kontseiluarentzat ezarritako erantzukizunei buruzko arauak zuzendari-gerenteari aplikagarriak izango dira, eta gainera erantzukizun akzioa Artezkaritza Kontseiluak berak ere erabili ahal izango du, Batzar Nagusiak hartutako erabaki sozialak aurkatzeko erabilitako epe berdinen barruan.

e) Ezingo dira zuzendari-gerentea izan abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 44. artikulua aipatzen dituen ezintasun eta debekuen kasutan aurkitzen direnak, edo Kooperatibako beste organo sozialen batetan parte hartzen dutenak.

## **37. ARTIKULUA. ZAINZA BATZORDEA. ESKUMENAK ETA FUNTZIONAMENDUA**

**BAT.-** Zaintza Batzordea hiru kide titularrez eta hiru ordezkoez osatzen da. Horiek Batzar Nagusiak hautatuko ditu isilpeko bozketaren bidez, hiru urteko epealdirako. Zaintza Batzordeko kideak berrautatuak izan daitezke.

**BI.-** Zaintza Batzordeko kide guztiak, titularrak nahiz ordezkoak, bazkide izan beharko dute. Hala ere, kooperatiban lan egiten ez duten langileek, horiek berrogeita hamar baino gehiago direnean, beren artean, isilpeko bozketaren bidez, lan-kontratu mugagabea duen langile bat hautatuko dute, Zaintza Batzordeko partaide izan dadin. Kasu horretan, Zaintza Batzordeak lau kide titular izango ditu (horietako bat lan-kontratu mugagabeko langilea). Lan-kontratupeko langileen ordezkariak, hautapen egunean kooperatibako langile diren guztien artean hautatuko dituzte, nahiz eta hautagai bakar bakarrik lan-kontratu mugagabekoak izango diren.

**HIRU.-** Batzar Nagusiak kargutik kendu ditzake Zaintza Batzordeko kideak, beti isilpeko bozketaren bidez, baliozko botoen gehiengoarekin.

Ordezkoak hautatzeko kide titularrak hautatzeko erabiltzen den antzeko bidea erabiliko da.

**LAU.-** Zaintza Batzordeak honako ahalmen hauek ditu:

a) Batzar Nagusiari aurkeztu baino lehen, urteko kontuak ikuskatu eta horiei buruz eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruz aginduzko txostena egitea, Kooperatibaren egoera finantzarioari buruzko kontu-ikuskaritza bat egitera behartuta daudenean salbu.

b) Kooperatibako Liburuak ikuskatzea.

c) Batzar Nagusira dei egitea, ezarritako epeetan, Kooperatibarentzat interesgarri dela iruditzen zaionean, baita Euskadiko Kooperatiben Legeko 35. artikuluko 2. eta 3. zenbakietan xedatutakoaren arabera, biltzeko egindako eskaerari, Artekartitza Kontseiluak ezentzun egin badiote ere.

d) Ordezkaritza agirien egokitasuna ikuskatu eta kalifikatzea eta, oro har, batzarretara sartzeko eskubideari buruzko zalantza edo gorabeherak erabakitzea.

e) Elkartearen erabakiak aurkatzea, Euskadiko Kooperatiben Legean aurreikusitako kasuetan.

f) Batzar Nagusia informatzea, honek aurkezten dizkion egoera edo arazoei buruz.

g) Batzar Nagusiak beste organoetako kideak aukeratu eta izendatzeko prozesua zaintzea.

h) Artezkaritza Kontseiluko kideren bat, 31-Bost. artikulua aipatzen dituen ezintasun eta debekuen kasuren batean sarturik badago, hori kargugabetzea eta Batzar Nagusia egin bitartean ezinbesteko neurriak hartzea.

i) Eta Euskadiko Kooperatiben Legeak ematen dizkion gainerako egitekoak.

**BOST.-** Zaintza Batzordeak bere kideen artean hautatuko ditu, isilpeko bozketaren bidez, lehendakaria eta idazkaria.

Erabakiak kideen gehiengoaren botoekin hartuko dira, eta berdinketa gertatzen bada ez da izango lehendakaria berdinketa hori ebatziko duena. Izan ere, balizko horretan Zaintza Batzordea berriro bildu beharko da, eta berriro ere berdinketa gertatzen bada beren dimisioa aurkeztu beharko dute Kooperatiban egingo den lehenengo Batzar Nagusia.

Organo kolegiatu gisa, eta kide bakoitzaren eskumenen kaltetan izan gabe, gutxienez hiru hilabetean behin bilduko da, Hots, urtean gutxienez lautan bilduko da. Balioz osatuta egongo da bilkurara gutxienez kideetako hiru aurkezten direnean. Ez da baliozkoa izango botoaren ordezkapena.

Hala ere, Artezkaritza Kontseiluko edo Zaintza Batzorde bereko kide orok eska diezaioke idatziz, eta behar bezala arrazoituta, Zaintza Batzordeko lehendakariari batzordeko deialdia egitea. Eskaera hori gutxienez Artezkaritza Kontseiluko edo Zaintza Batzorde bereko kideen heren batek egiten duenean, eta eskaera egin eta hilabeteko epean deialdi hori gauzatzen ez denean, eskaera egiten duten taldeetako edonork egin ahal izango du deialdia.

**SEI.-** Kitapen-aldian, artikulua honetan adierazitako funtzioetatik, aldi horri dagozkionak besterik ez ditu gauzatuko Zaintza Batzordeak.

## 38. ARTIKULUA. HELEGITE BATZORDEA

Artezkaritza Kontseiluaren esku egongo da Batzar Orokorrari Helegite Batzordearen sortzea proposatzea. Sortzen ez den bitartean bere funtzioak Kooperatiba Legean jasotzen diren moduan beteak izango dira. Sortuz gero, honela arautuko da:

**BAT.-** Helegite Batzordeak du, eskusiboki, Kooperatibaren baitan lehenengo instantzian harturiko zigortzeko akordioak berraztertzeko ahalmena, beti ere zigorra jasotako bazkideak propio eskatuta, arau-hauste larriak zein oso larriak eman direnean, eta berak du ere ahalmena diziplinatik kanpoko bestelako akordioak aztertzeko, Estatutu hauek edo 11/2019 legeak hala aurrikusten badute.

**BI.-** Helegite Batzordea, Batzar nagusiak isilpeko bozketaz hautatua, lau kidez osaturik egongo da eta beste hainbeste ordezkoz. Guztiak izan behar dira edozein arduraren sozialik ez duten Kooperatibako bazkideak. Kooperatiban gutxienez bost urteko antzintasuna beharko dute izan, eta hala izan ezean Kooperatiba osatu zen datatik izan beharko dute bazkide eta baita kargurako esperientzia kooperatibo eta egokitasun pertsonal nabarmenekoak ere. Beren agintaldia lau urtekoa izango da, eta berrautatu ahal dira.

Helegite Batzordeko kideek Presidente bat eta Idazkari hautatuko dute, eta biok hartuko dituzte karguoi dagozkien ardurak.

**HIRU.-** Helegite Batzordea erabat osaturik geratuko da bilkurara bertako kideen erdia baino gehiago badatoz. Bozaren delegazioa ez da posible izango, eta akordioak hartuko dira ondo emandako bozen gehiengo sinplez. Diziplina gaien inguruko ebazpenak hartzeko bozketa oro isilpekoa izango da eta Presidentearen boza ez da kalitatekotzat hartuko.

Helegiteen tramitazio eta ebazpenetatik kanpo geratuko dira 11/2019 Legeko 58. artikuluko 4. ataleko 1. paragrafoan adierazten diren Batzordeko kideak.

**LAU.-** Batzordeko aktek akordioen testuak jasoko dituzte. Akordioak Helegite Batzordeko liburuan jasota geratuko dira, Idazkariak eta Presidenteak sinatuta.

Akordioak behin-betikoak izango dira eta berehala exekutatuak. Aurkatu ahalko dira Batzar Nagusiak harturiko erabaki bat izan balitz bezala, 29. artikuluko adierazten duen moduan.

**BOST.-** Helegite Batzordearen funtzionamenduko araudia, artikuluko honek aurrikusten ez dituen kasuetan, Kooperatibaren Barne Araudiak ezartzen dituenetara egokituko da.

## 39. ARTIKULUA. KONTSEILU SOZIALA

**BAT.-**Kontseilu Soziala lan-bazkideen barruko ordezkartzako organo da, lan harremanari dagozkion gaiez arduratzen dena, bost kidez osatua, guztiok lan-bazkideak.

**BI.-**Kontseilu Soziala Batzar Nagusiak hautatuko du isilpeko bozketaz, kooperatibako lan-bazkideek berek eginiko proposamena oinarri hartuta. Batzarrak hartutako akordioan ere, gainerako arauak ezarriko dira: osaketari, funtzionamenduari eta hautagaien izendapenari dagozkionak. Izendapena kooperatiban dauden hezkuntza ziklotako ordezkartzak irizpideak kontuan izanik egin ahalko da.

**HIRU.-**Agintaldiak lau urte iraungo du. Bi urtero erdia berrituko da. Berrautatu ahalko dira. Uzteko kausak, agintaldiaren amaieraz gain, honakoak izan ahalko dira:

- a) lan-bazkide izatearen galera edo eszedentzia egoerarako pausoa.
- b) Hala markatzen duen zigorra, bazkide disziplina araudiaren aplikazioaren ondorioz.
- c) Batzar Nagusiak isilpeko bozketan hala erabakita.

**LAU.-** Kontseilu Sozialak egingo duen lehen bileran hautatuko du presidentea, bertako kideen artean, eta dagozkion funtzioetan jardungo da, nahiz eta delegatu ahalko dituen. Presidenteordea, balego, organoak hautatuko du, bertako kideen artean. Baita idazkaria ere.

**BOST.-** Kontseilu Soziala gutxienez hilean behin bilduko da ohiko bileran. Halaber, presidenteari egoki iruditzen zaion behar beste aldiz bilduko da, edo bertako kideen herenak gutxienez hala eskatuta.

**SEI.-**Deialdiek, presidentearen ardurapean daudenak, argi adieraziko dituzte data, ordua, tokia, puntu zerrenda eta gainerakoak. Kontseilu Sozialaren bileretara, bertako kideez gain, joan ahalko da Kooperatibako bestelako jendea, interesgarria ikusiko bada. Ez dute ordea botorik izango.

**ZAZPI.-** Kontseilu Soziala formalki osaturik geratuko da bertako kideen erdia eta bat gehiago gutxienez bildu denean. Asistentzia pertsonala izango da, nahiz eta posible izango den ordezkoan delegatzea.

Akordioak gehiago sinplez hartuko dira, eta presidentearen botoak erabakiko ditu hainbanakoak.

Idazkariak bileraren akta jasoko du. Aktok hurrengo bileran onetsiko dira, nahiz eta bertan harturiko eta bertako ahalmenekoak diren akordioak finkoak izango diren hartu ziren momentutik bertatik.

**ZORTZI.-** Kontseilu Sozialaren funtzioak honakoak dira:

a) Lan-harremanari dagozkion gaietan, Artezkaritza Kontseilua informatzea, aholkatzea eta kontsultatzea. Baita gaion inguruko txostena idaztea ere.

b) Ordezkatzen dituztenak informatzea, berengandik ekarpenak eta iritziak jasotzea, a) atalean adierazitako gaietan.

c) 11/2019 legeak adierazten dituen gainerakoak.

**BEDERATZI.-** Kontseilu Sozialak, edozein momentutan, bere funtzioak ondo betetzeko beharrezko iruditzen zaizkion argibideak eta informazioak eskatu ahalko ditu. Era berean, egoki ikusten dituen ekintzak proposatu ahalko ditu.

## **V. KAPITULUA. KOOPERATIBAREN ERREGIMEN EKONOMIKOA**

### **40. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNA**

**BAT.-** Bazkideek ez dute enpresaren zorren norbanako erantzukizunik izango. Kapital sozialean dituzten ekarpenek mugatuko dute beren erantzukizuna zor horiei buruz.

**BI.-** Berreskuratu beharreko ekarpenen zenbatekoa zehaztu ondoren, baja hartzen duten bazkideek ez dute inolako erantzukizunik izango baja hartu aurretik kooperatibak egin zituen zorreatatik.

### **41. ARTIKULUA. KAPITAL SOZIALA**

**BAT.-** Kooperatibako kapital soziala bazkideek horretarako emandako ondare ekarpenek osatuko dute, derrigorrezkoak izan edo borondatezkoak izanda ere.

**BI.-** Kooperatibaren gutxienerako kapital soziala HIRU MILA (3.000) EUROTAN finkatzen da.

**HIRU.-** Kapital sozialari egindako ekarpenak egiaztatzeko, izendun partaidetza libretak edo liburutxoak erabiliko dira.

**LAU.-** Kapital sozialari egindako ekarpenak egiteko dirua erabili beharko da. Ondasunak edo eskubideak ere erabili ahal izango dira; halako kasuetan Artezkaritza Kontseiluak zehaztuko du balioa, baina beraiek izendatutako aditu independente batek aztertu beharko du lehenengo eta behin.

**BOST.-** Bazkide bakoitzaren ekarpenen zenbateko osoa, bazkide laguntzaileak ez badira behintzat, ez da kapital sozialaren herena baino gehiago izango.

## **42. ARTIKULUA. DERRIGORREZKO EKARPENA KAPITAL SOZIALERA**

**BAT.-** Bazkide izateko hasiera batean derrigorrez egin beharreko ekarpena desberdina izan daiteke bazkide-mota bakoitzarentzat, eta ondorengo kopuruak finkatzen dira:

- . Bazkide erabiltzaileak.....HOGEITA HAMAR EURO.
- . Izaera mugagabeko lan-bazkideak.....HOGEITA HAMAR EURO.
- . Izaera mugatuko lan-bazkideak. ....HOGEITA HAMAR EURO
- . Bazkide laguntzaileak, pertsona fisikoak.....HOGEITA HAMAR EURO
- . Bazkide laguntzaileak, pertsona juridikoak....HOGEITA HAMAR EURO
- . Bazkide inaktiboak edo ez-erabiltzaileak.....HOGEITA HAMAR EURO

Bazkide bakoitzaren derrigorrezko ekarpen gutxieneko gisa une bakoitzean bazkide mota bakoitzarentzat indarrean dagoen hasierako derrigorrezko ekarpenaren ehuneko berrogeita hamarra ezartzen da, artikulua honetako Lau atalean aurreikusitakoaren arabera.

**BI.-** Bazkide izaera eskuratzeko beharrezkoa den hasierako gutxieneko ekarpena osoki ordaindu beharko da onarpeneko unean. Ekintza horretan, gutxienez, zenbateko horren %25 ordaindu beharko da; eskakizun hori betetzen ez bada ez da Bazkideek Erregistro-liburuan inskribatuko. Hitzartutako gainerako zenbatekoa onarpen-erabakitik kontatzen hasi eta gehienez ere lau urteko epean ordaindu beharko da, Artezkaritza Kontseiluak hartutako onarpen-erabakian aurreikusitakoaren arabera.

**HIRU.-** Kooperatibaren galerak bazkideei egozteagatik edota Estatutuetan aurreikusitako zigor ekonomikoagatik, bazkide horitako batzuen ekarpena artikulua honetako Bat atalean aipatzen diren gutxieneko ekarpenen azpitik geratzen bada, bazkide interesdunek zenbateko horretara iristeko beharrezkoa den ekarpena egin ahal izango dute, Artezkaritza Kontseiluak eskatuta. Ekarpen hori Artezkaritza Kontseiluaren eskaera jaso eta hiru hilabeteko epean ordaindu beharko da.

**LAU.-** Batzar Nagusiak urtero finkatuko du bazkide berrientzako hasierako derrigorrezko ekarpena, eta derrigorrezko ekarpen berriak exijitzea erabaki ahal izango du, zenbatekoak (bazkide-mota bakoitzarentzat desberdinak), epeak eta baldintzak ezarriz. Ados ez dagoen bazkideak baja hartu ahal izango du. Baja hori arrazoituztat hartuko da.

Batzar Nagusiak derrigorrezko ekarpen berriak erabakitzen baditu, eta kooperatiban bazkideen ekarpen boluntarioak badaude, horiek derrigorrezko ekarpen berriak ordaintzeko erabili ahal izango dira. Horretarako idatzizko eskaera bat egin beharko zaio Artekari, Kontseiluari, erabakia hartu zeneko egunetik hamar eguneko epean. Bertan ez zeuden bazkideei dagokionez, berriz, epe hori erabakiaren berri izaten duten egunetik hasita kontatuko da.

**BOST.-** Aurreko ataletan ezarritakoaren arabera, derrigorrezko ekarpenetan atzeratzen den bazkideak legezko interesa, eta bere berandutzeak eragindako kalteengatik ordaina ordaindu beharko dio Kooperatibari. Bazkide batek errekerimendua jaso eta hirurogei eguneko epean bere egoera normalizatzen ez badu:

a) Derrigorrezko baja eman ahal izango zaio, berandutzea bazkide izateko eskatzen den hasierako derrigorrezko ekarpenean izan bada, hau da, HIRUGARREN atalean LEHENENGO atalekoarekin lotuta aipatzen den gutxieneko zenbatekoan gertatu bada, edo

b) Kooperatibak egotzia izan daiteke gainerako balizkoetan.

## 43. ARTIKULUA. BORONDATEZKO EKARPENAK

**BAT.-** Batzar Nagusiaren esku dago bazkideek kapital sozialari borondatez egindako ekarpenak onartzeko akordioa hartzea ala ez. Beti ere, ekarpen horien baldintzak zehaztu beharko ditu, eta gutxienez:

- . Ordaintzeko epea.
- . Interes-tasa.
- . Eguneratzea
- . Berreskuratzea
- . Eskuz aldatzea.

Baldintzok, derrigorrezko ekarpenek dituztenak baino hobeagoak ahal izango dira.

**BI.-** Artekari Kontseiluak onartu ahal izango ditu bazkideek borondatez egindako ekarpenak, 11/2019 Legearen 62.2 eta 60.5 artikuluetan ezarritakoaren arabera dagozkion ordainketa eta kopuruaren aldetiko mugak errespetatuz.

## 44. ARTIKULUA. EKARPENAK EGUNERATZEA

**BAT.-** Kooperatibaren balantzea, Zuzenbide Orokorreko elkarteentzat oharmandako modu eta onura berberen arabera bideratuko da.

**BI.-** Balantzearen erregulatzearen ondoriozko gainbalioa, aurreko ekitaldietako galerak konpentsatzeko erabiliko da osorik, eta gainerakoa, Batzar Nagusiaren erabakiz eta honek zehazturiko kopuruetan, kapitala gaurkotzeko edo erreserbak handitzeko, derrigorrezko zein borondatezko banaezinak.

## 45. ARTIKULUA. EKARPENEN INTERESAK

Kapital sozialera egiten diren derrigorrezko ekarpenek ez dute interesik sortuko, eta borondatezko ekarpenek, berriz, ez dute inolaz ere diruaren legezko interesa gaindituko.

## 46. ARTIKULUA. EKARPENEN ESKUALDAKETA

**BAT.-** Ekarpena eskualdagarriak dira, bai bizien arteko egintzen bidez, bai heriotzagatiko oinordetzagatik.

**BI.-** Bizien arteko egintzen bidez, bazkideen artean eta hiru hilabeteko epean bazkide egiteko hitza eman dutenen artean, ondorengo irizpideen arabera:

-Bazkide izateko konpromisoa hartu duenari egiteko eskualdaketa, bazkide bezalako benetako bere onarpenari baldintzatuko zaio.

-Ekarpen sozialen eskualdaketa batek ezingo du bazkide lagatzailearen ekarpena une bakoitzean indarren dagoen sarrerako derrigorrezko gutxienezkoaren azpitik kokatu.

-Eskualdatutako ekarpena, hasierako derrigorrezko ekarpena egiteko erabili ahal izango du eskuratzailerak.

-Hitzarturiko eskualdaketak Artezkaritza Kontseiluari jakinaraziko zaizkio, eskualdaketak egiaztatu, kontrolatu eta erroldatzeko.

**HIRU.-** Heriotzagatiko oinordetzagatik ("mortis causa"), eskubidedunentzat izango dira bazkide izan eta horrela eskatzen badute. Bestela, lehenik eta behin bazkide egin beharko dute. Bazkide izateko onarpena heriotza gertatu ondoko hiru hilabeteko epean eskatu beharko da.

## 47. ARTIKULUA. EKARPENAK BERRESKURATZEA

**BAT.-** Bazkide izateari uztean, bazkide horrek edo bere legezko oinordekoek egindako ekarpenen itzulketa eska dezakete, baja gertatu zeneko balioaz. Ekarpen horien balioespena baja gertatu zeneko ekitaldiko balantzearen itxieran zuten balioan oinarrituko da.

**BI.-** Baja 14. edo 15. artikuluetan jasotakoaren arabera arrazoitua denean, edo heriotzagatik denean, ez da inolako murrizketarik egingo.

Beste kasu guztietan, honako murrizketa hauek egitea erabaki dezake Artezkaritza Kontseiluak:

\* %30 gutxiago, gehienez ere, bazkidea kanporatua izan bada edo gutxieneko egonaldia bete ez duen arrazoi gabeko baja bada.

\* Bazkideen nahitaezko ekarpenen likidazioko kopuruaren %20 gutxiago, gehienez ere, borondatezko, nahitaezko edo arrazoitu gabeko bajen kasuan. Borondatezko ekarpenak ez dira murriztuko.

**HIRU.-** Ekarpena itzultzeko epea ez da izango baja gertatu zenetik bost urte baino luzeagoa, edo bazkidea hil zenetik urtebete baino luzeagoa. Artezkaritza Kontseiluak erabakiko du zein kopuru itzuliko den, kooperatibaren finantza egoera eta bajaren ezaugarriak aintzat hartuta.

**LAU.-** Itzultzeke dauden kopuruetan diruaren legezko interesak jasoko dira, baina ezingo dira eguneratu.

**BOST.-** Artezkaritza Kontseiluak ekarpenen itzulketarako egin den edozein eskaera ukatu dezake inolako baldintzarik gabe.

Artezkaritza Kontseiluak ekarpenen berreskuratzea onartzen badu, itzultzeko epea, eta hori zehaztea Artezkaritza Kontseiluari dagokio, ezingo da izan bost urte baino gehiagokoa Kooperatiba uzten denetik aurrera. Bazkide hiltzea gertatuz gero, heriotza gertatzen denetik urtebete igaro baino lehen itzuli behar zaie eskubide-hartzaileei.

Artezkaritza Kontseiluak onartutako berreskurapenak eskaeren antzintasunaren arabera egin beharko dira. Kapital ekarpenen berreskurapenaren baldintzak zehazteko gainontzeko xehetasunak ere Artezkaritza Kontseiluaren esku egongo dira.

## 48. ARTIKULUA. PARTAIDETZA BEREZIAK

**BAT.-** Partaidetza berezitzat hartuko dira 11/2019 Legeko 67. artikuluan xedatutakoaren arabera arautzen diren finantzazioak. Nabarmendu behar da horiek ez direla berreskuratu beharko jaulkipenetik edo kontratazio-datatik gutxienez bost urte pasa arte. Horien ordainketa kooperatibaren emaitzen arabera finkatuko da.

**BI.-** Partaidetza berezien onarpena Batzar Nagusiaren aginpidea da eta dagokion erabakian zehaztuko du:

a) Jaulkipenaren diru-kopurua eta baldintzak; inola ere ez dute emango Batzar Nagusian bozkatzeko eskubiderik, eta ezta Artezkaritza Kontseiluan parte hartzeko eskubiderik ere.

b) Bazkideei eta soldatapeko langileei eskainitako zenbatekoa, hirugarrenei eskaini aurretik, ez da zenbateko osoaren %50 baino txikiagoa izango.

## 49. ARTIKULUA. ALDIZKAKO ETA APARTEKO KUOTAK

**BAT.-** Batzar Nagusiak bazkideen ordaindu behar dituzten aldizkako kuotak erabakitzeko aukera izango du, aipatutako organoak zehaztutako aldizkakotasun, zenbateko eta moduarekin. Kuota horiek ez dute kapital soziala osatuko, eta ez dira bazkideari itzuliak izango.

Aldizkako kuotak Estatutu hauetan aurreikusitako bazkide-mota guztiei edota batzuei bakarrik eska dakizkieke.

**BI.-** Orobat, Batzar Nagusiak aparteko kuotak jartzea erabaki lezake une jakin batzuetan, inbertsio bereziak egiteko beharrezkoa baldin bada.

## 50. ARTIKULUA. BESTELAKO FINANTZAZIOAK

11/2019 Legearen 68. artikulua 3 eta 4 zenbakietan aurreikusitako edozein finantza-baliabide erabili ahal izango du Kooperatibak, beharrezkoak diren aurreko erabakiak hartuta.

## 51. ARTIKULUA. GAINDIKIN GARBIAK

**BAT.-** Gaindikin garbiak zein diren zehazteko, merkataritzako elkarteetarako ezarritako arau eta irizpideak hartuko dira kontuan, hurrengo zenbakian zehaztutakoa kontutan hartuz.

**BI.-** Honako hauek hartuko dira kontu-sail kengarritzat:

- Kooperatibaren kudeaketarako emandako ondasunen diru-kopurua, balorazioa merkatu-prezioetatik gora egin ez bada.

- Lan-bazkideen lan-aurrerakinen diru-kopurua, Kooperatibaren jardueraren sektorerako zonan ordaindu ohi den mailatik gorakoa ez izanik.

- Kapital sozialari egindako ekarpenengatik, partehartze bereziengatik eta kapital sozialarekin batu ez diren laguntza eta finantzaketengatik sortutako interesak.

- Legez baimenduak eta bidezko diren amortizazioak. -Kooperatibaren funtzionamendurako beharrezkoak diren amortizazioak. -Indarrean dagoen legediak onartzen duen beste edozein.

## 52. ARTIKULUA. SOBERAKIN ERABILGARRIAREN BANAKETA

**BAT.-** Gaindikin garbiak, aurreko urteetako galerak konpentsatzeko kopurua eta dagozkien zergak kendu ondoren, soberakin erabilgarriak dira.

**BI.-** Soberakin erabilgarrien banaketa Batzar Nagusiak erabakiko du hurrengo arauen arabera:

a) Derrigorrezko Erreserbaren Funttsaren multzora eta Kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenera % 30a izango da gutxienez; horietatik gutxienez %20 Derrigorrezko Erreserbaren Funtsera bideratuko da, eta gutxienez %10 Kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenera bideratuko da.

Kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenera bideratuko den gutxieneko portzentaia bere erdira urritu ahal izango da, Derrigorrezko Erreserbaren Funttsaren diru kopurua Kapital Sozialaren % 50 adinakoan izan arte.

b) Gainerako soberakin erabilgarria Derrigorrezko Erreserba Banaezinaren Funttsa eratzera xedatuko da, etorkizunean gerta litezkeen galerak zurgatzeko edo konpentsatzeko helburuarekin.

## **53. ARTIKULUA. DERRIGORREZKO FUNTSAK**

**BAT.-** Derrigorrezko Erreserbaren Funttsa, Kooperatibaren finkatzera, hazkuntzara eta bermera xedatzen delako, bazkideen artean banatu ezinezkoa da.

Aurreko artikuluan aurreikusitako diru-hornikuntzez gain, bajaren bat dagoenean gertatzen den ekarpenaren kenketa ere nahitaez Funttsa hontara bideratuko dira.

**BI.-** Beste kontu-sail batzuetatik banaturik balantzearen pasiboan kontabilizatuko den Kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpena, Batzar Nagusiak zehaztuko dituen oinarritzko ildoak jarraituz, 11/2019 Legeko 72. artikuluan aurreikusten duen helburuetarikoren bat betetzen duten ekintzetarako bideratuko da.

Aurreko artikuluan aurreikusitako diru-hornikuntzez gain, diziplinaz bazkideei ezarriko zigor ekonomikoak ere nahitaez Funttsa hontara bideratuko dira.

~~Hezkuntza eta Kooperatibaren Sustapenerako Funttserako izanik aplikatu ez den diru-kopuruak, hornikuntza gertatzen deneko hurrengo ekitaldian Euskal Herriko Zor Publikoko tituluetan gauzatuko da.~~

Kooperatiba-heziketa eta sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako ekarpenarako izanik aplikatu ez den diru-kopuruak, irabazi-asmorik gabeko entitateei emango zaie, soberakinaren banaketa onetsi den ekitaldi ekonomikoaren hurrengo ekitaldian, entitate horiek erabil dezaten ekarpen horretarako erabaki diren interes publikoko helburuetan..

## **54. ARTIKULUA. FUNTS BOLUNTARIOAK**

Kooperatibak, Batzar Nagusiaren erabakiz, Erreserbarako Funtts Boluntario bat eratu ahal izango du. Funtts hori ezingo da banatu, eta galerak konpentsatzera xedatuko da.

## 55. ARTIKULUA. GALERA-EGOZKETAK

**BAT.-** Galera-egozketa ondoko arauen arabera egingo du Batzar Nagusiak:

a) 42-Bi artikulua arabera, dagokion kasuetan eta ahal den zenbatekoan, balantzea erregulartzeko funtsari.

b) Borondatezko Erreserbako Funtsei, dauden kasuetan, galera-kopuru osoa.

c) Soberakin positiboetatik azken bost urtetan derrigorrezko fondora bideratu den batezbesteko portzentaia adinakoa izango da Derrigorrezko Erreserbako Funtzari gehienez ezarriko zaion egozketa. Nolanahi ere, Nahitaezko Erreserba Funtzak kooperatibaren sozietate-kapitalaren ehuneko berrogeita hamarra gainditzen badu, galerak konpentsatzeko erabili ahal izango da portzentaia horretatik gorako zenbatekoa.

d) Izandako funtzioaren arabera eta jarduera kooperatibizatuaren arabera, a), b) eta d) ataletan konpentsatu gabeko zenbatekoa bazkideei egotziko zaie. Bazkide bakoitzaren galerak individualizatu ahal izateko ondoko banaketa eta parametro hauek hartuko dira kontuan:

- Galeren %90 bazkide erabiltzaileei egotziko zaie, eta gainerako %10 lan-bazkideei. Lan-bazkiderik ez badago %100 bazkide erabiltzaileei egotziko zaie.

- Ekitaldian zehar jasotako lan-aurrerakinen zenbateko osoa izango da lan-bazkideek jarduera kooperatibizatuan izango duten partaidetza neurtuko duen modulua.

- Bazkide erabiltzaile bakoitzak ekitaldian zehar kooperatibara igortzen duen ikasle kopurua izango da bazkide-mota horrek jarduera kooperatibizatuan izango duten partaidetza neurtuko duen modulua.

**BI.-** Aurreko atalean esandakoa kontutan izanik, hala ere ekitaldi bateko galera osoa edo zati bat individualizatu gabeko asignaziozko kontu batetara egotzi dezake Batzar Nagusiak, gehienez bost urtetako epean etorkizuneko emaitza positiboan edo dagokionean balantzearen erregulartzearen kargura amortizatzeotan.

Bost urteak igaro ondoren, konpentsatu gabeko saldoa geldituko balitz, artikulua honek aurreko ataleko d) letran dioenaren arabera, gelditzen den aldea, eta bakoitzak konpentsatu beharreko ekitaldian eginiko jarduera kooperatibizatuaren arabera, eragile diren bazkideen artean banatuko da.

Aldi horretan baja emanik kanporatu diren bazkideei, konpentsatzeko gelditzen den galeren Funtzari dagokion zatia egotziko zaie.

## 56. ARTIKULUA. KONTU-IKUSKARITZA

**BAT.-** Urteko diru-kontuak eta ezinbesteko edo 11/2019 Legeak 76. artikuluan aurreikusten duen kasuren bat gertatzen deneko kudeaketa txostena kanpo ikuskaritzaren esku utziko ditu Kooperatibak.

**BI.-** Ikuskarien izendapena Batzar Nagusiak beteko ditu, eta horrela ez balitz, Artezkari Kontseiluak, baina ondoren izango den lehen Batzar Nagusiari izendapenaren berri emanez.

# VI.KAPITULUA. ELKARTEAREN AGIRIAK KONTABILITATEA

## 57. ARTIKULUA. ELKARTEAREN AGIRIAK

**BAT.-** Kooperatibak honako liburu hauek eramango ditu behar bezala eta egunean jarrita:

- a) Bazkideen erregistro liburua.
- b) Kapital Sozialera egindako ekarpenen erregistro liburua.
- c) Batzar Nagusi eta Artezkaritza Kontseiluaren akta liburua, eta halaber Zaintza Batzordearen, Helegite Batzordearen eta Giza Batzordearen akta liburua.
- d) Inbentario-liburua eta Balantze-liburua.
- e) Egunkari-liburua.
- f) Beste legezko xedapenen bidez exijitutakoak. Guzti hauek denak, Kooperatiben Erroldak egokitu edo legezatuak izango dira.

**BI.-** Kontabilitate idazpenak eta oharpenak edozein prozedura egokiz egingo dira, informatikoak ala ez. Ondoren, ekitaldia ixten denetik sei hilabeteko epean, korrelatiboki koadernatuak eta legezatuak izango dira, Kooperatiben Erregistroan.

Horren kaltetan izan gabe, aurreko atalean aipatutako organoen aktak, prozedura informatikoak edo antzekoak erabiliz eratzen direnak, Kooperatiben Erregistroa igorriak izango dira, behar bezala ziurtatuta, horiek onartu eta bi hilabeteko epean, legezatuak izan daitezten.

## 58. ARTIKULUA. KONTABILITATEA

**BAT.-** Kooperatibak bere jarduerari egokituriko kontabilitatea eramango du, Merkatal Kodean eta gainerako legezko xedapen aplikagarrietan agintzen denaren arabera, eta erregimen ekonomiko kooperatiboaren berezitasunak errespetatuz.

Kooperatibaren ekitaldi ekonomikoa urte bateko urtarrilaren 1ean hasiko da, eta abenduaren 31n amaituko da.

**BI.-** Ekitaldia ixtean Kooperatibak egin beharko dituen urteko kontuak ondoko hauek dira: Balantzea, Galera eta Irabazien kontua eta Memoria, eta dagokion kudeaketa txostena, urteko kontuak ikuskatzera behartuta badago.

## 59. ARTIKULUA URTEKO KONTUEN GORDAILATZEA

Kooperatiben Erroldan gordailatzeko, eta Batzar Nagusiak onartu zuenetik hilabeteko epean, urteko kontuak aurkeztuko ditu Artezkaritza Kontseiluak; behar izanez gero, dituen partaide guztiek izenpeturik, kudeaketaren eta diru-kontuen ikuskatzaileen txostena ere. Artezkaritza Kontseiluren batek ezingo balu sinatu, espresuki adierazi beharko luke arrazoia.

## VII. KAPITULUA. DESEGITEA ETA KITAPENA

### 60. ARTIKULUA DESEGITEKO ERABAKIA ETA ARRAZOIAK

**BAT.-** Kooperatiba desegiteko kausak izango dira:

- a) Estatutuetan finkatutako epemuga betetzea.
- b) Sozietatearen helburua betetzea, edo argi eta garbi ikustea ezin dela hura bete.
- c) Bi urtetan jarraian, sozietatearen organoak geldirik edo jarduerarik gabe geratzea, edo, arrazoirik gabe, kooperatiba-jarduera etetea.
- d) Kooperatiba sortzeko legez eskatzen den gutxienekotik behera murriztea bazkide kopurua, baldin eta murrizketa horrek hamabi hilabete baino gehiago irauten badu.
- e) Estatutuetan ezartzen den gutxienekotik behera murriztea sozietatearen kapitala, baldin eta hamabi hilabete edo gehiago irauten badu murrizketa horrek.
- f) Kooperatiben bat-egitea edo erabateko zatiketa.
- g) Kooperatibaren likidazio-fasea irekitzea konkurtso-prozeduran.
- h) Batzar orokorrak desegiteko erabakia hartzea, abenduaren 20ko 11/2019 legearen 38.2 artikuluan ezarritako gehiengoaren erabakiz.
- i) Legeetan edo sozietatearen estatutuetan ezarritako beste edozein arrazoi.

**BI.-** Desegite erabakiak gehiago arruntaz hartuko dira, aurreko ataleko e) eta g) puntuetako kasuetan izan ezik, hauetarako gehiengoa gutxienez bi herenekoa izango delarik.

**HIRU.-** Horrelakoetan, Artezkaritza Kontseiluko kideek Batzar Nagusirako deialdia egingo dute bi hilabeteren epearen barruan; Zaintza Batzordeak edo beste edozein bazkidek Artezkaritza Kontseiluari deialdia egin dezan eska diezaioke.

Artezkaritzea Kontseiluak, edo interesa duen edonork, kooperatibaren desegite judiziala eskatu dezake, ondorengo baldintzak ematen baldin badira:

- a) Batzar Nagusirako deialdirik ez egitea.
- b) Estatutuek zehazten duten epean Batzar Nagusia ez biltzea.
- c) Batzar Nagusia bildu arren, desegite-erabakia hartu ez bada.
- d) Batzar Nagusia bildu arren, desegitearen aurkako erabakia hartu bada.

**LAU.-** Desegite-erabakia edo hala adierazten duen ebazpen judiziala, Kooperatiba Erregistroan inskribatzeaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzea Aldizkarian eta Gipuzkoan zabalkunde handia duen egunkari batetan argitaratuko dira.

## **61. ARTIKULUA KITAPENA**

Kooperatibaren kitapena 11/2019 Legeko 93. artikulutik 100. artikulura bitartekoetan, eta indarrean dauden eta aplikagarri diren gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera gauzatuko da.

# **AZKEN XEDAPENAK**

## **LEHENENGOA. Kooperatiba-arbitrajea**

Kooperatiba eta bazkideen artean, eta berauen artean sor daitezken arazo gatazkatsuak, baita kitapen-aldian ere, kontziliazio-bideak agortu eta gero, derrigorrez, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiaren arbitrajepean ezarriko dira, betiere organo hori arazo horiek ebazteko eskuduna bada. Bi aldeek arbitraje horretatik ondorioztatzen dena onartzeko konpromisoa hartuko dute.

Kooperatibetako bazkideek, edozein delarik ere kooperatibaren mota, kooperatibako barne-bidea –Euskadiko Kooperatiben 11/2019 Legean, hura garatzeko arauetan, sozietate-estatutu hauetan edo kooperatibaren barne-arauetan ezartzen dena– agortu behar dute kooperatibetako bazkideen eta kooperatiben artean sortzen diren auziak ebazteko, jurisdikzio eskudunera edo epaiketaz kanpoko bidera jo baino lehen

## **BIGARRENA. Aholkulari juridikoa**

Kontu-ikuskaritzei buruzko Legean xedatutakoaren arabera, edota Kooperatibaren garapen-arauetan ezarritakoaren arabera, urteko diru-kontuak kanpoko ikuskaritza bati aurkeztera behartuta dauden Kooperatibek, Artezkaritza Kontseiluaren erabakiz aholkulari juridiko bat izendatuko dute.

Aholkulari juridikoak Kooperatiban Erregistratu behar diren eta Batzar Nagusian nahiz Artezkaritza Kontseiluan hartutako erabakiak sinatuko ditu, Zuzenbidez egokiak diren erabakiz.

Erabaki horien ziurtapenetan jasoko da erabaki horiek akta-liburuan azaltzen direla, aholkulari juridikoaren irizpenarekin.

Aholkulari juridikoak bide zibiletik erantzungo du kooperatibarekiko, bazkideekiko edo hirugarrenekiko zabarkeria profesionalaren kasuan.

Funtzio horretan jardutea bateraezina izango da Zuzendari Orokor karguarekin, eta baita Artezkaritza Kontseiluko edo Zaintza Batzordeko kide izatearekin.

Kooperatibaren eta aholkulari juridikoaren arteko harremana ondoko mota hauetakoa izan daiteke: zerbitzu-alokairukoa, profesional liberal gisa; lan-kontratukoa; edota sozietatekoa, lan-sozio gisa.

## **HIRUGARRENA. Delituen prebentzioa.**

**BAT.-** Kooperatibak delituak prebenitzeko eredu bat edukiko du, eta haien segimendua egiteko mekanismo bat ezarriko du.

**BI.-** Eredu horren edukia Artezkaritza Kontseiluak onartuko du eta Batzar Orokorrak berretsiko, eta honako hauek jasoko ditu: arriskuen mapa; erabakiak hartzeko protokoloa; kudeaketa eredua; salaketa sistema; zehapen araubidea; egiaztapen sistema; aldizkako berrikuspena; eta Delituak Prebenitzeko Ereduaren eguneratzea.

**HIRU.-** Delituak prebenitzeko eredua eta eredu horrek funtzionatzen duela eta betetzen dela gainbegiratzeko ardura ekimen botere eta kontrol botere autonomoak dituen kooperatibako organo bati eman behar zaio, edo, bestela, pertsona juridikoaren barne kontrolen eraginkortasuna ikuskatzeko legezko funtzioa duen organo bati. Kooperatibak besteren kontura diharduten 250 bazkide langile baino gehiago ez baditu, Artezkaritza Kontseiluaren esku utziko da funtzio hori. Kopuru hori gainditzen badu, ordea, organo espezifikoa bat izendatu beharko da funtzio horiek bere gain hartzeko, zigor arloko indarreko araudian horrela ezarrita dagoelako.

## **LAUGARRENA. Kooperatiba indarkeria sexistarik gabeko eremu bat izateko baliabide espezifikoak.**

**BAT.-** Kooperatibak indarkeriarik gabeko lan eremuak edukiko ditu, non emakume eta gizonentzako berdintasun printzipioak errespetatuko diren.

**BI.-** Kooperatibak sexu jazarpenagatiko eta sexuan oinarritutako jazarpenagatiko protokolo bat edukiko du. Protokolo horretan, sexu jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruz aurkeztutako erreklamazioak eta salaketak ebazteko jarduketak jasoko dira, eta behar diren bermeekin aplikatuko da.

**HIRU.-**Kooperatibak beharrezko prestakuntza eta informazioa eskainiko die bere bazkide langile guztiei eta besteren konturako langile guztiei, aipatutako eskubideak erabat errespetatu beharraz jabetu daitezzen.